ASTELEHENEKO
# Goienkaria
2010eko azaroaren 8a > Astelehena > VII. urtea > 297. zenbakia > 1,10 euro
Goiena 10 URTE Komunikazio Zerbitzuak www.goiena.net TOKIKOM

"Mendebaldeko bizimoduak zuzenean eragiten die herrialde indigenei"

**Xabier Martinez**
Mugarik Gabeko Gipuzkoako arduraduna > 8



**G2a** **Danbaka, bigarren emanaldia** > 29

**ERASOA**
**Bost pertsona atxilotuta, Arrasaten gizon bat jipoitzearren** > 04

**ARRASATE**
**Zaldibar eta Gelma arteko zubi modernoa Gabonetarako gertu** > 14

**BERGARA**
**Iñaki Aspiazuk egindako Agarreko garaiaren birsortzea, sarean**> 16




**AZKEN KILOMETROAN** David Gartzia durangarrak -eskuman- ikuslez lepo zegoen Ibargarai kalean aldatu zuen erritmoa, eta lasterketa irabazi. JULIO CALLEJA

**ATLETISMOA** > ANTXINTXIKA KROSA, OLATZ REMENTERIA MEMORIALA

# Behobia-Donostiaren atarian, 562 atleta Antxintxika krosean

**DAVID GARTZIA** Ibargarain erasoa jota irabazi zuen Durangokoak; emakumezkotan Ainhoa Landinez izan zen onena

**ERREKORRA** Kroseko seigarren edizioan parte-hartze kopurua handitu da berriro, iaz baino 60 lagun gehiago

**BEHOBIARAKO GERTU** Helmugan lasterkari askok adierazi zuten domekako hitzordua dutela begiz jota > 22-23

**POLITIKA** > SAHARA

## 24 ordu Marokon atxikita

Olaia Sagredo aretxabaletarra bart iritsi zen etxera, Casablancan atxikita egon ostean > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Gurasoak** > 29
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Debora-pasa** > 36
**Telebista-Irratia** > 37
**Berri-zakua** > 38-39

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

## Gogoan izan zuten Joxepa Arregi, atzo

Etxeratek Batzar Nazionala egin zuen atzo eguerdian Arrasateko Amaia antzokian; ondoren plazan elkartu ziren. Euskal presoen eskubideak aldarrikatzeaz bat omenaldi hunkigarria egin zioten Joxepa Arregiri. > 04




Herritarrak ekitaldiko une batean; atzean Joxeparen omenezko kartela. JULIO CALLEJA





Koldo Lasa sukaldaria Bergaran duen jatetxean, erretzaileendako egokitutako jangela atzean duela. E.M.



Cafe Bergara tabernako Elvira Otaño bezero erretzaile batzurekin, zapatu goizean.

**OSASUNA** > TABAKOAREN LEGE BERRIA

# Tabakoaren legea: bigarren saiakera etorriko da 2011n

**URTARRILETIK** Urte berriarekin batera jarriko dute indarrean tabakoaren lege berria

**OSASUNA** Adingabeen eta bereziki haurren osasuna babestea helburu du Jaurlaritzaren lege berriak

**OSTALARIAK** Legea nork betearazi behar duen ez dute argi ostalariek eta askok mesfidantzaz hartu dute neurria

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Kea ez, baina tabakoaren gaineko aurreko legea haizeak eraman zuen. 2005ean heldu zen legeak lantokietan erretzea debekatu zuen eta, horrez gain, taberna eta jatetxeendako arauak etorri ziren. Zarata ugari eta, taberna eta jatetxeei dagokienean behinik behin, emaitza eskasak ekarri zituen legeak. Orain, adingabeen babesa handitu eta leku publiko itxietan erretzea debekatzea du helburu Jaurlaritzaren tabakoaren legea aldatzeko proposamenak. Urte berriarekin bat indarrean jarriko dute.

**Zarata ugari eta taberna eta jatetxeen kasuan emaitza eskasak ekarri zituen aurreko araudiak**

**Europako hainbat herrialdetako eredua jarraitu nahi dute tabakoaren gaiarekin; neurriek polemika piztu dute**

Bi helburu nagusi ditu aipatutako legeak: batetik, toki publiko itxietan tabakoaren debekua behingoz erabatekoa izatea eta, bestetik, adingabeen eta bereziki haurren osasuna babestea. Jaurlaritzak iragarri duenez, oraingoan gogor egingo dute legea bete dadin, eta araudia betetzen ez dutenendako zigorrak izango dira. Hain zuzen, orain arteko arauak lausoegiak zirela onartu dute agintariek. Europako hainbat herrialdetako eredua jarraitu nahi dute tabakoaren gaiarekin eta hainbat neurrik polemika piztu dute dagoeneko; esaterako, parketako jolastokietan ezin izango da erre urtarriletik aurrera. Esan bezala, txikienen osasuna erretzaileen eskubideen aurrean jarri nahi dute.

**ERRETZAILEENDAKO GUNEAK**

Koldo Lasa sukaldari bergararraren hitzetan, "debekatuta egon beharko litzateke debekatzea. Erretzaileendako gune aproposak egokitzen badira, airea erauzteko sistema ganorazkoak jarrita, ez legoke arazorik egon behar". Hain zuzen ere, horixe egin zuten Lasa jatetxean orain dela hiru urte pasatxo; "120.000 euroko inbertsioa egin behar izan genuen jangeletako batean bezeroek erre ahal izateko, eta ezertarako orain... Nolabaiteko konpentsazioa eskatu dugu Jaurlaritzan, baina erantzunik ez dugu jaso oraindik", diosku Lasak. Sukaldari bergararraren ustez, jatetxeak izango dira kaltetu nagusiak; "gastronomi elkartetan ez dute inolako debekurik jarri eta hara joango dira asko eta asko lasai erretzera... Ostalarien elkartearen izenean, lokalaren %30 erretzaileendako egoki ahal izateko eskaera egin dugu, zerbitzaririk gabe, baina ez digute utziko. Nire ustez guztiei eman behar zaie gozatzeko aukera, erretzaile ez direnei eta erretzaileei". Edozein modutan, Koldo Lasak aitortzen duenez, jendea gero eta kontzientziatuago dago tabakoaren arazoarekin eta bezero asko dira gaur egun zigarroarekin jatetxe kanpoaldera irteten direnak.

**KONTZERTUETAN, ZER?**

Gorka Arizmendiarrieta Espaloia Kafe Antzokiko lan bazkidea da. Haren ustetan, zaila izango da kontzertuetan-eta jendea ez erretzea, "baina legea horrela dator eta badirudi guztiendako berdina izango dela; denok kon-






Ikusteko dago musika aretoetan-eta legea beteko den ala ez. JULIO CALLEJA


E.M.


Gorka Arizmendiarrieta, Elgetako Espaloia Kafe Antzokian, bezero batzuekin. JULIO CALLEJA

tzientziatu beharko gara...". Oraindik ez zaie inolako abisurik etorri lege berriaren aplikazioaren gainean eta ez dira elkartu bestelako ikuskizunak jasotzen dituzten aretoetako arduradunekin; "argi dago giroa hoztu egingo dela nolabait araudi berriarekin eta gure bezero batzuek esan digute honez gero, erdi txantxetan-edo, erretzea debekatzen badugu ez direla etorriko... Pertsonalki, lege berriaren aurka nago".

**ERRETZAILEEN TABERNA**

Orain dela bost urte, 100 m2 baino gutxiagoko tabernek aukera izan zuten negozioa erretzaileei edo ez erretzaileei bideratzeko. Cafe Bergarako Elvira Otañok argi izan zuen. Bera da etxean erretzen ez duen bakarra eta tabernatik igarotako zerbitzari guztiak erretzaileak izan direla diosku. Berak 20 urte darama erre barik. Bidekurutzetan duen tabernara erretzaile asko joaten direla aitortzen du; "beldur naiz bezero kopuruak ez ote duen behera egingo urtarriletik aurrera. Aspalditik emakume bat etorri izan da ia egunero hona: kafea hartu eta egunkaria irakurtzen zuen bitartean zigarroa erretzea atsegin zuen... Tabakoa utzi duela esan dit senarrak eta azken hilabete t´erdian ez da agertu...".

Kontuak kontu garai berria dator tabernariendako urtarriletik aurrera. Osasunaren aitzakiarekin, egoera berrira egokitzea tokatzen da.

**Antton Elortza** > Gipuzkoako Ostalarien Elkartekoa

## "Bezeroen alde gaude gu eta lege formala eta argia eskatzen dugu"

**E. M.** > OÑATI

**Gipuzkoako Ostalarien Elkarteko presidenteordea da Antton Elortza (59 urte). 1.200 bazkide inguru dira. Taberna 1980an zabaldu zuen Oñatin, eta erretzeari orain dela 11 urte utzi ziola diosku.**


ARTXIBOA

**Zela jaso duzue Ostalarien Elkartean tabakoaren lege berria?**

Hiru eskaera nagusi egin ditugu elkartetik: batetik, aurrekoan tabernetan eta lokaletan egokitzapen obrak egin behar izan zituztenek nolabaiteko konpentsazioa jasotzea; bestetik, legea betetzeko gure jarduera zein izango den ondo zehaztea, erantzukizuna norena den ez dagoelako batere garbi; kartelak jarri eta hautsontziak kentzera mugatuko gara gu?; eta, azkenik, denondako legea berbera izatea eskatzen dugu. Tabernetako kea txarra bada, gastronomia elkartetakoa ere txarra izango da, ala? Logika handirik ez duten bereizketak daude.

**Zer-nolako hartu-emanak izan dituzue Jaurlaritzako ordezkariekin?**

Celina Pereda Jaurlaritzako ordezkariarekin hainbat bilera egin ditugu eta lasai egoteko, gauzak ez direla hain konplikatuak izango agindu digu, baina hain konplexua da gaia... Espainian eta EAEn ezberdintasunak izango dira: Espainian, hoteletan, erretzaileendako logelak (%30) aurreikusten dira eta EAEn ez; gurean ere ezin izango da umeen parkeetan erre... Dantzalekuetan zer gertatuko den ere ez dago argi... Ez dakit, pentsatu nahi dut gauzak zuzentzen joango direla pitinka-pitinka.

**Europan zorrotzagoak izan dira eta aurreko saiakerak huts egin zuen hemen.**

Gauzak azkar egin ziren lehen eta hainbat kontu ez zeuden ondo zehaztuta. Gu bezeroen alde gaude, baina lege formala eta argia eskatzen dugu, guztiondako berbera.

**Zuen tabernan erre daiteke egun?**

Gurean jendea jokoan egitera etortzen da, tutea dela, txintxoia dela... Erretzera kanpora joan beharko dute orain? Ba, horretara ere ohitu egin beharko dugu, ala?






Jendetza bildu zen herriko plazan Etxeraten 10. Batzarraren ondoren egin zen elkarretaratzean. JULIO CALLEJA

**POLITIKA** > ETXERAT!

# Joxepa Arregi gogoan izan dute Etxeraten 10. Batzar Nazionalean

Urteko balantzea egin zuten 10. Batzarrean eta etorkizunerako urratsak finkatu

Joxepa Arregiri omenaldi jendetsua egin zioten plazan, eguraldiak lagundu ez bazuen ere

**LANDER MUÑAGORRI** > ARRASATE

"Aro berri batean gaude, eta hor euskal jendarte osoak babestu behar ditu euskal presoak", zioen Beñat Zarrabeitia Etxerateko kideak Arrasateko plazan egin zen elkarretaratzea baino lehen. Ordurako amaituta zegoen erakundeak Arrasateko Amaia antzokian egin zuen X. Batzar Nazionala. 700 pertsona bertaratu ziren, eta antzokia txiki utzi zuten.

Amaia antzokian egindako batzarrean 2010 urte honetako errepasoa egin zuten partaideek. "Gogorra izan da aurtengo urtea, elkartasunaren kriminalizazioa asko bultzatu dutelako besteak beste", Zarrabeitiaren hitzetan. Horretaz gain, aurrera begirako urratsak ere finkatu zituzten, "hurrengo egunetan emango ditugu xehetasun gehiago", zioen Etxerateko kideak.

**OMENALDIA**

Etxeraten Batzar Nagusia eta ondorengo elkarretaratzea ez ziren kasualitatez izan Arrasaten. Izan ere, maiatzean hil zen Joxepa Arregi Etxerateko presidente ohia izan zuten gogoan. Arrasaateko plaza nagusia beteta, omenaldi hunkigarria eskaini zioten. "Pena izan da euria egin izana, ekitaldi hasieran zegoen jende kopurua apaldu baitu euriak omenaldia hasi denerako", zioen ekitaldiaren ondoren Isabel Zabartek, Joxepa Arregiren alabak.

Bertsolariak, dantzariak, txalapartariak edo kantariak, denek izan zuten euren presentzia Arregi eta gainerako senide eta presoei egin zitzaien omenaldian.

DATUA

**700**

**PARTE-HARTZAILE BATZARREAN**

Etxerateko 10. Batzar Nazionalean parte hartu zutenek Amaia antzokia bete zuten. Arrasateko plazan egin zen elkarteratze eta omenaldia ere jendetsua izan zen.

ESANAK

**"2010 urtea gogorra izan da guretako, elkartasunaren kriminalizazioa asko bultzatu baitute, besteak beste"**

**Beñat Zarrabeitia** > Etxerat

**SAHARA**

## Olaia Sagredo 24 orduz Marokon atxikita

Aretxabaletarra bart iritsi zen etxera Casablancan atxikita egon eta gero

**L.M.** > BERGARA

Iesbaa elkarteko –Saharar herriaren aldeko taldea– Olaia Sagredo aretxabaletarrak Marokoko Casablanca hirian atxikita eman zuen larunbateko gaua, Eusko Legebiltzarreko bi parlamentarirekin (EAJko Nerea Antia eta Aralarko Mikel Basabe) eta Nafarroako Parlamentuko Nekane Perez Aralarko parlamentariarekin batera.

Laurak sahararren kanpalekuak bisitatzera zihoazen Euskal Fondoak antolatutako elkartasun bidaia baten baitan. Casablancara heldu eta Aiaunera eramateko hegaldi bat hartu behar zuten, baina pasaporteak eta ontziratzeko txartelak kendu zizkien bertatik ateratzea galaraziz. Zapatu gaua aireportuko hotel batean eman zuten.

Nerea Antiaren esanetan, parlamentariek eta Sagredok saharar kanpamendu batera joan eta bertan bizi duten egoera ikusi nahi zuten, urriaren 24an 14 urteko Nayen Elgarhi haurra Aiauneko kanpamenduetatik gertu tiroz hil ondoren.

Atzo ilunkeran iritsi ziren etxera Sagredo eta hiru parlamentariak. 10:00etan irten ziren Casablancatik, eta Madrilen eskala egin eta gero iritsi ziren Loiura.

ZER DIOTE DANBAKA LEHIAKETAKO PARTE-HARTZAILEEK?

ZER DIO EDU MURUAMENDIARAZ DANTZARIAK?

**JENDARTEA** > ERASOA ARRASATEN

## Bost pertsona atxilotuta gizon bat jipoitzeagatik

Burnizko barra eta mailuarekin kolpatu zuten, San Andresen erasoarekin jarraituz

**L.M.** > ARRASATE

Ertzaintzak bost pertsona atxilotu zituen zapatu arratsaldean Arrasaten gizon bat ibilgailu batean indarrez sartu eta jipoitzeagatik. Ibilgailuan bertan burdinezko barra batekin eta mailu batekin kolpatu zuten biktima, eta San Andres auzoan ibilgailutik atera ondoren erasotzen jarraitu zuten.

Gertakaria jazo baina ordu batzuk lehenago, biktimak beste bi pertsonen laguntzarekin, atxilotuetako bat kolpatu zuen Uribarri auzoan utzita dagoen pabiloi industrial batean. Itxura guztien arabera, kasu honetan erasotzaileak zirenak, furgonetarekin iritsi ziren musika altuarekin eta alkohola edanez. Biktimaren emazteak arreta eman zien, eta eztabaida piztu zen.

26 eta 36 urte arteko atxilotuak epailearen aurrera eraman dituzte dagoeneko.



Leopoldo Abadia, hitzaldia eman ostean, Santa Ana antzokian. TXOMIN MADINA

Leopoldo Abadia > Idazlea eta analista

# "Ekintzaileek erotasun puntua behar dute, eta krisi garaian ekintzaile asko behar ditugu"

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

**Leopoldo Abadia (Zaragoza, 1933) idazle eta analista ezagunak hitzaldia eman zuen urriaren 29an Oñatiko Santa Ana antzokian: *Emprendedores: sensatos en tiempos de crisis*. Krisiaren aurrean ekintzaileak behar direla aldarrikatu zuen. Haren ustez, gainera, ekintzaileek "erotasun puntu" bat izan behar dute.**

**Ekintzaileak behar direla diozu. Ez al da arriskatuegia krisi garaian? Egun, ekintzailea izatea ez al da erokeria?**

Nik beti esan izan dut ekintzailea denak erotasun puntu bat duela. Izan ere, segurtasuna aldatzen duzu ondo irtengo den inongo ziurtasunik ez duzun proiektu bategatik. Alde horretatik ero samar egon behar da ekintzailea. Baina proiektu berritzaileetan ekitea oso polita da; zurea denez ondo pasatzen duzu eta itzelezko ilusioarekin hartzen duzu. Eta *erokeria* hori aurrera ateratzeko hiru pertsonaren laguntza behar baduzu, langabezian dauden hiru pertsona gutxiago izango dira.

Orain, krisi garaian, ekintzaile asko behar dira, aberastasuna eta enplegua sortzeko. Hala ulertzen dut nik.

**Hainbat aholku eman ohi dituzu. Aholku horietako batzuk laburbiltzerik bai?**

Baikortasuna da bat, eta honako esaldi honekin labur daiteke: debekatuta geratzen da krisiaz berba egitea. *Nola doa dena? Bada, badakizu, krisiarekin…* Halako esaerak debekatuta geratzen dira aurrerantzean. Bigarrenik, ezin dezakegu arreta galdu. Errealitate gordina bizitzen ari gara eta ezin dugu beste alde batera begiratu, gertatzen ari diren kontuetan zentratu behar gara.

Horrez gain, zuhurrak izan behar gara. Ezin gara ausartegiak izan eta ezta koldarregiak ere. Etxean ezer egin gabe geratzen dena ere ez da batere zuhurra. Oreka hori mantentzea, baina, oso zaila da. Bestalde, buruarekin gastatzen ikasi behar dugu. Kontsumismora bultzatzea ez zait gustatzen, betiko kontura itzultzea da-eta: gehiago gastatzen dut, gehiago zorpetzen naiz… Dinamika horrek emaitza onik ez duela ematen ikusi dugu; gure aukeren gainetik bizi izan gara.

Horrez gain, lotsagabe asko egon bada ere, pertsona onak izan behar gara. Horrek ere lagunduko digu-eta krisitik ateratzen. Aholku hauek guztiak ekintzaileendako dira baina edozein herritarrendako erabilgarriak izan daitezke.

> "Baikortasuna behar dugu: aurrerantzean debekatuta dago krisiaz berba egitea"
>
> "Zuhurrak izan behar gara; ez ausartegiak eta ezta koldarregiak. Oreka mantentzea zaila da"
>
> "Buruarekin gastatzen ikasi behar dugu, gehiegi gastatzeak ez du emaitza ona ematen"

**Arazoa kudeatu beharrekoen lana nolakoa ari da izaten, zure ustez?**

Oro har, txarra. Neurri onak izan dira baina agintariek ez diote krisiari neurria hartu. Herriari gauzak argi esan behar zaizkio eta botoetan pentsatzen berba egiteak arazoak sortzen ditu. Modu umilean egin behar zaio berba herritarrari: egoera honetan gaude, horrenbeste diru zor diogu ez dakit zeini, aro txarra dator eta zergak igo beharko ditugu… Hori guztia argi eta garbi esan beharra dago.

**Krisi latz honetatik irtengo garela uste al duzu?**

Irtengo gara beti irteten delako, baina ez datarik jarri. Eta agintariek dataren bat jartzen badute ez sinistu data hori.

Bide zailago batetik aurrera egin behar dugula jakin behar dugu, baina aurrera egin behar dugu. Datorren urtean irteten garela krisitik? Ongi etorria izan dadila, baina ez gara krisi aurreko garaira itzuliko. Eta eskerrak, egoera horrek egungo egoera eragin du-eta!

**Arrakasta borobila izan da hitzaldia. Zer sentitzen duzu halako harrera izan ostean?**

Ilusio handia egiten dit. Liburua atera eta gutxira asko harritu ninduen halako erantzuna izateak, eta orain ohitzen hasia naiz.

Asko dibertitzen naiz hitzaldiotan eta gainera, azken hitzaldi honetan moduan, jende gaztea ikusteak, are gehiago pozten nau. Jende gaztearengana heldu beharra dago deritzot, oso garrantzitsua da.

etxeko leihotik



Ubane Madera > umadera@goiena.com

## Goiena moduko gehiago baleude...

Pozik gabiltza Goienan, aurten 10. urteurrena dugulako. Eta pozik egoteko modukoa dela pentsatzen dut, berez, edozein enpresatan nekeza baldin bada 10 urte betetzea, are gehiago euskalgintzan dihardun enpresa baten kasuan, gu moduan.

Eta jakina, ezin dugu ahaztu Goienak 10 urte bete baditu, Goiena baino lehen Debagoienean zeuden euskarazko aldizkarietatik eratorritakoa dela Goiena; beraz, euskararen alde lanean dabilen urte kopurua bikoiztu egingo litzateke gutxienez.

Debabarrenekoa naiz ni, eta inbidia handia ematen dit Goienak Debagoienean lortu duenak: euskara elkarteetatik eratorritako komunikabide guztiek bat egin eta ibarreko herri guztietarako komunikazio medio eraginkorra bideratzea. Gainera, prentsa, irrati, Internet eta telebista bitartez.

> "Nik ez dut Goiena moduko beste adibiderik ezagutzen Euskal Herri osoan"

Non dago halakorik? Nik ez dut beste adibiderik ezagutzen Euskal Herri osoan. Eta kasu honetan ez nabil berba egiten Goienako langile moduan, baizik eta irakurle eta ikus-entzule moduan.

Azken batean, Goiena ez da bakarrik euskararen aldeko mugimendua. Hori ere bada, jakina. Baina Goiena industria bat da: komunikazioa landu nahi duen ekimena, bertatik bertarakoa, gertukoa, etxekoa, eta batez ere, profesionala eta kalitatezkoa, edozeinekin konpetitzeko modukoa.

**> Industria egitura**
**Elkarte izatetik enpresa izatera pasa ziren komunikabideak Goienari esker; eta hori da bidea, komunikazio industria sortzea. Miresmenez begiratzen dugu Kataluniara, han bai, han ez dago dudarik: industria dira.**

**> Profesionaltasuna**
**Elkarteak, erakundeak eta lankideok elkarlana izan dugu sekretu handiena gero eta profesionalago izateko. Kooperatiba bat sortu genuen aurrera egiteko eta horri eskerrak etengabeko garapenean jarraitzea da asmoa.**

ZERBITZUAK > ADMINISTRAZIOA

# Aldundiaren tramiteetarako bulego birtuala martxan da

Tramite eta zerbitzuei buruzko informazioa internet bidez lortzeko aukera eskaintzen du

J.B. > BERGARA

Aldundiak zerbitzuei buruzko informazioa internet bidez herritarraren eskura uzteko bulego birtuala jarri du martxan. Hala, bitarteko elektronikoen bidez egin daitezkeen Aldundiaren prozedura, tramite eta zerbitzuetarako sarbidea eta horiekin zerikusia duten aplikazio, inprimaki eta eredu normalizatuak kontsulta ahalko dituzte herritarrek. Urriaren 29an jarri zuten martxan bulego birtuala.

**LAU SARBIDE**

Lau sarbide eskaintzen dituzte: iragarki taula elektronikorako sarbidea, kontsultak, kexak eta iradokizunak egitekoa, agiriak egiaztatzekoa eta jakinarazpenak egitekoa. Jakinarazi dutenez, laster beste zerbitzu batzuk internet bidez erabiltzeko aukera eskainiko dute.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta egubakoitzetan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, GOIENKARIA-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak… eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**36KO GERRA** > MEMORIA HISTORIKOAREN BERRESKURAPENA

# Aranzadiren eta Intxorta 1937ren erakusketa, eguenetik ikusgai Arrasaten

Bi erakundeek elkarlanean prestatu duten erakusketa hilaren 28ra arte egongo da irekita, eta memoria historikoaren alde egitea du helburu



Toribio Jauregik 1938an aterako argazki hau ere ikusiko da erakusketan. TORIBIO JAUREGI

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Eguenean zabalduko ditu ateak Arrasateko Kulturaten Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak prestatutako erakusketak.

Bi zati izango ditu beronek. Batetik, Euskal Herrian eta Espainian 36ko gerrako hobiak azaleratzeko Aranzadiko ikertzaile eta boluntarioek egindako lana erakutsiko da argazki eta panelen bidez.

**'HAZIA EREIN ZENUTENOI'**

Intxorta 1937 Kultur elkarteak bestalde, *Hazia erein zenutenoi* leloa jarri dio bere erakusketa zatiari. Elkarteko kide den Juan Ramon Garaik azaldu digunez, euren asmoa da Debagoienean eta Debabarrenean desagertu diren guztiei izenak eta aurpegiak jartzea, eta helburu horretan egindako lana erakutsiko dute: elkartearen hasierako urratsak, kolaboratu izan duten argitalpenak eta egindako ikus-entzunezkoak...

**EKITALDI GEHIAGO**

Garairen hitzetan, memoria historikoa berreskuratzea eta horrela justizia egitea dira erakusketaren helburuak, eta helburu horrekin beste hainbat ekitaldi ere prestatu dituzte datozen asteotarako; tartean Intxorta 1937k argitaletxe moduan kaleratuko duen lehen lanaren aurkezpena, Maite Landinek eta Juan Ramon Garaik berak idatzitako *Punto Final. Última testigo* eleberri historikoa, hain zuzen ere.

### Ekitaldien egitaraua

**Azaroaren 8a, astelehena**
**20:30,** Amaia Antzokian
*Izarren argia* pelikularen emanaldia

**Azaroaren 11a, eguena**
**19:00,** Kulturaten
Erakusketaren inaugurazioa eta Pako Etxeberriak eskainiko duen *Exhumando fosas, recuperando dignidades* izeneko hitzaldia

**Azaroaren 18a, zapatua**
**19:00 Kulturaten**
Gerra Zibila Euskal Herrian Elgetako ibilbide tematikoaren inguruko dokumentala. Julia Monge eta Josuren Murgizu izango dira hizlariak

**Azaroaren 23a, martitzena**
**19:00,** Kulturaten
*Malko Gorriak* dokumentalaren aurkezpena. Juan Ramon Garai eta Jose Ramon Intxauspe izango dira hizlariak

**Abenduaren 2a, egubakoitza**
**19:00 Kulturaten**
Maite Landinek eta Juan Ramon garaik idatzi duten *Punto Final. Última testigo* eleberri historikoaren aurkezpena

**HEZKUNTZA**> '24H OF INNOVATION'

# MUko ikasleak arrakastatsu berrikuntza lehiaketan

25 ikasle inguruk hartu zuten Iparraldeko ESTIA Ingenieritza Eskolak antolatutako proiektu errealen berrikuntza lehiaketan

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Sari nagusian hirugarren postua eta marketing atalean berriz, lehenengoa. Horiek izan ziren MUko diseinu industrialeko ikasleek ESTIAk, Iparraldeko Ingeniaritza Eskolak, antolatzen duen *24h of Innovation* lehiaketan lortutako emaitzak.

**24 ORDUKO EPEA**

Besteak beste Frantzia, Espainia eta Erresuma Batuko unibertsitatetako ikasleek hartu zuten parte lehiaketan. Bertan, 24 ordu dituzte lehiakideek enpresek planteatutako berrikuntza proiektu errealak garatzeko. MUtik joandako ikasleek, hiru taldetan hartu zuten parte, beste horrenbeste proiektu landuz: belarritako tapoien inguruan bat, sukalderako etorkizuneko plantxaren inguruan bestea eta Akitaniako museo baten sarrera berriz diseinatzea hirugarrena.

Etorkizuneko plantxaren proiektua landu zutenentzat izan zen sari nagusiko hirugarren postua; belarritako tapoiak landu zituztenentzat, aldiz, marketineko lehen saria.

**MAILA ONA**

Ion Iriarte, MUko diseinu industrialeko irakaslearen esanetan, oso gustura daude ikasleek erakutsitako mailarekin, eta proiektu errealekin lan egitearen onurak ere azpimarratu ditu.



Etrokizuneko plantxen proiektua landu zuen taldea, sari banaketan. ION IRIARTE




Bergarako hainbat zinegotzi bildu ziren elkarretaratzean. JULIO CALLEJA

**POLITIKA** > UDALBILTZA AUZIA

# Udalbiltzako auzipetuen absoluzio eskaera Bergaran

Ezker abertzaleko, EAJko, Aralarko eta EAko zinegotziek hartu zuten parte ekitaldian

**TXOMIN MADINA** > BERGARA

Herritar ugarik egin zuten bat Bergaran zapatuan Udalbiltza auzian inputatutakoen eta erakundearen beraren absoluzioa eskatzeko elkarretaratzean.

*Bai Udalbiltza, Bai Euskal Herria* izan zen lelo nagusia, eta Udalean dauden alderdi abertzaleetako zinegotziek eutsi zioten pankartari.

**'AUKERA BAKARRA, ABSOLUZIOA'**

Agurne Barruso alkateak elkarretaratzean esan zuenez, epaiketa ikusita ez dago absoluzioa beste aukerarik; baina gaineratu zuen horrelako prozesuek judizialetik baino politikotik izaten dutela gehiago. Barrusok alderdien arteko batasuna azpimarratu zuen, gogoratuz Udalbiltza bera horrela sortu zela.

Mugarik Gabe gobernuz kanpoko erakundeak urte ugari daramatza Latino Ameriketako indigenen egoeraren berri ematen Euskal Herrian. Horretarako film mostra bat antolatzen dute urtero. Aurten, ordea, Elkarhezitzen Arrasateko elkartearekin batera antolatu dute Debagoienean eskainiko den mostra hau. Aurretik Tolosan, Zumarraga eta Zarautzen izan dira.

**Xabier Martinez** > Mugarik Gabeko Gipuzkoako herrialde arduraduna eta hezkuntza taldeko kidea

# "Mendebaldeko bizimoduak zuzenean eragiten die herrialde indigenei"

**LANDER MUÑAGORRI** > BERGARA

**Azaroaren 9an hasi eta abenduaren lehenera artean Zinema Sozialen emanaldiak eskainiko dituzte Arrasate, Eskoriatza eta Oñatin. Ziklo honen lehen edizioan indigenen egoeraren inguruko filmak eskainiko dituzte, indigenek eurek grabatuta. Euren egoera zuzen zuzenean jasotzeko aukera izango da.**

**Zergatik antolatu dituzue indigenen inguruko emanaldiak?**

Herri indigenak beti izan dira Mugarik Gabe erakundearen giltzarrietako bat. Garai batean eman zen internazionalismotik eraginda pixkanaka hemen, Euskal Herrian indigenen inguruko sentsibilitate hori sortzen hasi zen. Orduz geroztik ari gara herri indigenekin lanean.

**Munduko biztanleriaren %5a izanda, aniztasun kulturalaren %90aren jabe dira. Globalizazioaren alternatiba al dira?**

Ez dago zalantzarik dibertsitate kultural izugarria daukatela, eta horren alde borrokan ari dira. Gaur egungo sistema kapitalistaren aurka ere proposamenak dauzkate, eta guk elkarte bezala alternatiba horiek zabaltzeko ohitura daukagu.




Xabier Martinez Mugarik Gabe erakundearen egoitzan, Donostian. GOIENKARIA

**Mugarik Gabe erakundearen helburuen artean daude aldaketa pertsonala, gizarte aldaketa eta aldaketa politiko-estrukturalak gauzatzea. Proposamen horiek zabaltzea luzera begirakoak dira, ala?**

Bai, hala da. Gure helburuak beti epe luzerakoak izan dira, transformazio politikoak bultzatzen ditugu epe motzeko prozesuak baino gehiago. Gure helburua ez da proiektu txikiak egitea, baizik eta lan egiten dugun lekuan bertan transformazio politiko batzuk bultzatzea. Horretarako hiru lan ildo dauzkagu.

**Zeintzuk?**

Lehenengo eta behin genero berdintasuna lantzen dugu. Zentzu horretan Latino Amerikako emakume antolatuekin egiten dugu lan, eta hemen bertan ere hezkuntzan egiten dugu lan. Bestetik herri indigenekin ere lan egiten dugu, eta ildo horretatik doa zine mostra hau. Herri indigenen erakundeekin egiten dugu lan, beraien eskubideak aitortu eta burutu daitezen. Azkenik, elikaduraren subiranotasuna eta zentzuzko kontsumoa ere bultzatzen dugu. Ildo honetan, gure eguneroko kontsumoak herrialde indigenetan izan ditzakeen eraginean sakontzen dugu.

**Kontzientziazioan oinarritzen al zarete horretarako?**

Bai. Esaten dute informazioarekin hasten dela eraldaketa bat burutzen, eta uste dugu hemengo jendearen artean kontzientzia kritiko bat sortu behar dela, eta birplanteatu zein bizitza eredu daukagun hemen eta zein beharko genukeen.

**Eta ildo horretatik doa indigenen film ziklo hau.**

Hemen egiten dugun hezkuntza lanaren atzean hamasei urte inguru daramatzagu Donostia, Bilbo eta Gasteizen zinema mostrak egiten. Orain dela sei urteetatik hona ordea herrietan egiten ari gara mostra hauek. Egin ditugun edizio horietatik asko izan dira indigenen ingurukoak. Betiere kontzientziazio lana burutzeko asmoarekin garatutako proposamenak izan dira.

KONTZIENTZIAZIOA

**"Birplanteatu beharra daukagu zein bizimodu daukagun hemen eta zein beharko genukeen"**

INDIGENAK

**"Gaur egungo sistema kapitalistaren aurka proposamen ugari dauzkate indigenek"**

DESINFORMAZIOA

**"Komunikabideetan indigenen inguruan ematen den irudia estereotipoz beteta dago"**

**Eta zer hobe eurek egindako filmak eskaintzea baino...**

Hala da. Komunikabideetan orokorrean ematen den irudia estereotipoz beteta dago. Oso ohituta gaude ikustera dokumental batean nola iristen den gizon zuria indigenen lurraldeetara, eta nola euren dantza eta errituak grabatzen dituzten. Oso ikuspegi mugatua da. Horren aurrean, indigenek urte asko daramatzate antolatuta, eta komunikatzeko bide hori euren gain hartzea erabaki zuten. Kamerak hartu eta euren bizitza eredua grabatzen hasi ziren, baina ez hori bakarrik, erresistentzia prozesuak, euren eskariak eta salaketak ere grabatu dituzte munduan zehar ezagutarazteko.

**Eta zer errekurtso dauzkate eurak produzitzen dituzten filmak zabaltzeko?**

Coordinadora Latino Americana de Cine y Comunicación de los Pueblos Indígenas (CLAPCI) izeneko koordinadora bat sortu zuten, eta hauek bi urterik behin indigenen zinema mostra bat antolatzen dute, edizio bakoitza herrialde ezberdinetan. Horrek eragina du mundu mailan, lan ugari agertzen baitira mostra horretan. Gu festibal hartan izaten gara, eta eurekin daukagun akordio bati esker hona ekartzen dugu pelikula kopuru bat.

**Aurten gainera lehenengoz ariko zarete Elkarhezitzen erakundearekin elkarlanean...**

Iaz izan genuen Elkarhezitzen erakundearen berri, Debagoienean zinema jardunaldi batzuk eskaini zituztenean. Kasualitatez, Mugarik Gabe izena jarri zioten gainera. Ikusi genuen antzeko gauzak egiten genituela, eta orduan indarrak batzea erabaki genuen. Eurak zeuden herrietan sartzea ahalbidetu digu bateratze honek, eta eurak gure baliabideak aprobetxatu ahal izan dituzte. Etorkizunean ere elkarlanean jarduteko asmoa daukagu.

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

## UZTAILA-URRIA
## SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA

# Xabi Etxaniz Acebo Zorionak!

Zuk ere hurrengo sari nagusia irabazi nahi?

Parte hartu zozketan



UKABIko Saioa Epelde Wii Sport-Resort beltza ematen Xabi Etxanizi.

## Azaroko sariak



**LIBURU SORTA BAT**
Bidali KLUBA LIBURUAK [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
PAMIELA argitaletxea



**SKUN-FUNK-EKO KAMISETA+POLTSA**
Bidali KLUBA KAMISETA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
skunkfunk



**UMEENTZAKO PUZZLEA**
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 215800 zkra.
Ikastolen Elkartea



**ERREMEIXUAK DVD-A**
Bidali KLUBA DVD [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
gizarte kutxa · Bergarako Udala · Goiena

## SARI NAGUSIA AZAROA-URTARRILA

**PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA**



**26 HAZBETEKO TELEBISTA**

- 26"-ko TFT-LCD pantaila.
- TDT integrado.
- HDMI.
- USB 2.0

EROSKI

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: ***kluba@goiena.com***

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

## kale inkesta

# Teknologia berrien aro honetan, lehengo garaietatik zer botatzen duzu faltan?



**Arantxa Kortabarria**
Erretiratua
Arrasate

Lehen ez zeuden gaur besteko baliabideak komunikaziorako, baina harreman estuagoa genuen gure artean. Egun bakoitza bere kontu ibiltzen da; lehen denbora gehiago egiten genuen kalean.



**Luis Migel Laspiur**
Langilea
Arrasate

Gure gazte denboran beste giro bat egoten zen kalean, plazan musika izaten zen eta jendea gehiago mugitzen zen. Egungo harremanak hotzagoak dira, eta konfiantza falta ere badagoela esango nuke.



**Puri Alonso**
Erretiratua
Arrasate

Egun, poltsikoko telefonoak direla eta, denok gaude komunikatuta, baina baita lokalizatuta ere. Denek dakite non zauden. Horrek askatasun galera suposatu digu. Hala ere, nahiago dut egungo bizimodua.



**Idoia Iñurrategi**
Langilea
Eskoriatza

Egia esateko, ez dut ezer faltan botatzen. Ni kalean lehengo moduan ibiltzen naiz, eta nire umeek ere ahalik eta denbora gehien egiten dute kalean. Ez dira etxean gelditzen ordenagailuaren aurrean.

## irakurlearen txokoa

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

OÑATI

**> Egun berezietan udaltzainek "sentzibilizazio" handiagoa**

Hori esateko deitu digu oñatiar batek, alegia, egun berezietan udaltzainek sentsibilizazio handiagoa izan beharko luketela: "Domu Santu egunean udaltzainak hilerri inguruan ibili ziren autoei isunak jartzen, eta nik uste dut holako egun berezietan, hilerrian jende asko batzen denean, beste modu batean jokatu beharko luketela. Autoak gaizki aparkatuta zeuden, baina ez zuten trabarik egiten".

DEBAGOIENA

**> Biribilguneak txukun, baina arriskutsu**

Arrasatear batek idatzi ditu salatzen aspaldian egiten dihardutenbiribilgunean estetikoki politak izango direla, baina ez direla batere seguruak: "Esaterako Zubillagako errotonda egin zuenak ez dakit zertan pentsatzen zebilen... Metalezko igeltxo moduko batzuk daude, oso politak, baina motorrean auto istripu bat izanez gero, eta errotonda gainera joan, agur".

ARRASATE

**> Parrandan irteten direnek "errespetua besteekiko"**

Arrasatear batek deitu digu kexu larunbat gauetan eta igande goizean gazte batzuen portaerarekin. "Ondo iruditzen zait parranda egitea, baina gainerakoak errespetatuz. Igande goizetan hainbat txokotan sekulako txiza usaina egoten da, eta nazkagarria da. Tabernetan komunik ez al dago ala?" galdetzen du.

## usteak uste

**Txomin Madina**

# Letretako bat zifren bueltan

Bi. Santiago eta Bartzelona, Aita Santuak asteburuon gure inguruan bisitatu dituen hiriak. Benedikto XVI.ak esandakoen artean Europa berriz ebanjelizatu behar dela. Beste Errekonkista bat, Joseph? Nire partetik, ez, eskerrik asko!

Hamar. Ama izan den errumaniar jatorriko neskatilaren adina. Umearen amak eta jaioberriaren amonak esan omen du hau ez dela drama bat, zerbait pozgarria baizik. Normaltasuna aipatu du. Kontu txarra normaltasuna heziketa falta edo zerbait okerragoa estaltzeko erabiltzen denean...

3.018. Urria amaieran Debagoienean zegoen langabe kopurua, aurrekoan baino hamahiru gutxiago. Inguruko hainbat enpresari buruz entzuten diren zaratak baina, ez dira oso itxaropentsuak.

Gordinak dira zenbakiak; ñabardurak, letrekin datoz. Zifrak ala letrak, zer nahiago?

## zorroztailea



**Markos Balentziaga**

# Pozoirik gabe

"Nazionalismoei buruz hausnartzeko eta ikertzeko, inoiz eta inon egin den lehen masterra martxan da Euskal Herriko Unibertsitatean. Duela hiru aste hasi zen *Euskal nazionalismoa XXI. mendean* ikerketa masterra, baina atzo izan zen hasiera ekitaldia".

**Aitziber Laskibar**
'Berria' > 2010-11-05


Harian > Euskal Herria
Nazionalismoez «pozoirik gabe» ikertzeko masterra abiatu du EHUk
«Estaturik gabeko nazioak bilduko lituzkeen erakunde bat sortuko nuke»

Joan dan egubakoitzeko *Berria* barrittu eta goapotu barrixak horixe ziñuan Euskal Herriko Unibertsitateak ekin barri dotsan masterraren notiziaren aittamenian: "Pozoirik gabe", hau da, "nazionalismoez pozoirik gabe ikertzeko masterra abiatu du EHUk".

Estreno-usañian dator notizia; izen be nazionalismuaz xalotasunez jarduteko asmuak berak halako galdera bihurri eta muker bat eragitten dau: pozoirik gabe? Halabiharrak halaxe nahi izanda EHUn masterra hastiarekin bateratsu 2010eko Nobel sarixa Vargas Llosa idazle bikañari emon dotse. Literaturako Nobel saridun aukeratzen daben batzordekuak jakiñaren gañian ete zeren EHUn halako masterra emoten hasi barrixak dirana?

Nobel saridun barrixa bere 74 urtetan munduari hamaika jirabuelta emondakua da; bizi be, urtian zihar, bizpahiru lekutan bizi izaten da, eta asko irakurri daben mutilla da; idatzi, berriz, usuak hegaran letxe egiten dau: asko, aguro eta ondo. Eta horren guztiaren ondorioz, bistan da, munduan diran nazionalismo gehixenen kontra ondo bakunatuta eta zentzatuta dago.

> **"Vargas Llosa be nazionalismua ahotan hartu eta leziñuak emoten dihardauan idazle eta pentsalarixen kate luzian begi bat baiño ez da"**

Baña Vargas Llosa be nazionalismua ahotan hartu eta (izurrite bat dala diño) leziñuak emoten dihardauan idazle eta pentsalarixen kate luzian begi bat baño ez da, dotore-dotoria, baña kate-begi bat baño gehixago ez, hemendik aurrera zaratatsuagoa izango dana. Gure artian nazionalismo ixa danen kontra daren askojakiñen soka hori luze-luzia da, jakiña danez. Hor sailkatzen dira ataleje frankista izandako Areilza, De la Cierva edo Manolo Fraga modukuak; edota munduko gaitz guztiendako irtenbidia dakixen Juaristi, Savater edo Arteta moduko jakinkilluak.

Jende saiatua da hori guztia nazionalismuak, españolak ez beste danak, eragitten dittuan kaltiak eta okerrak esplikatzen. Zenbat esames, jardun, hasarre, ernegu eta artikulu español nazionalismua ez dan beste edozein baztertzeko modukua dala señalatzen, beste inongo bereizketarik egin barik! Nazionalismuaz, pozoirik gabe? Horixe masterra!

Goienkaria
Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi
Asteburuko erredakzioaren arduraduna Xabier Urtzelai Erredakzioa Irati Goitia, Txomin Madina, Edu Mendibil, Lander Muñagorri Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain
EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com
ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Gabonetarako gertu egongo da Zaldibar eta Gelmagunea lotuko dituen zubi modernoa **> 14**



**> BERGARA**
Sarean dago Iñaki Aspiazu arkitektoak Agarreko garaia birsortzeko egin duen lana **> 16**



**> ARETXABALETA**
Bukatzear daude Lausittako etxe txikietan egiten dihardute saneamendu lanak **> 19**

**BERGARA** > MERKATARITZA

# Udal Pilotalekuko kantxa azoka bilakatu zen hirugarren urtez

**AZOKA FRONTOIAN**
Bergarako dendarien elkarteko 19 denda batu ziren azokaren hirugarren ekitaldian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Hirugarren urtez, Udal Pilotalekua azoka bilakatu zuten aste bukaeran Bergarako dendariek. Bedelkar herriko dendarien elkartearen eskutik, zapatuan, goiz eta arratsaldez eta domeka goizean merkataritza gune izan zen pilotalekuko kantxa. Azokaren hirugarren ekitaldian 19 denda batu ziren, iaz baino hiru gehiago hain justu. Lan bikoitza egin behar izan zuten gehienek, azokako postuaz gain, zapatuan kaleko denda ere zabaldu zutelako. Familiakoen eta lagunen laguntza ezinbestekoa izan zitzaien dendariei.

Joan den asteko ordu aldaketaren eta Soraluze-Bergara antxintxika probaren *erruz*, erosle dezente batu ziren zapatu arratsaldean. Dendariak, orokorrean, pozik zeuden jasotako erantzunarekin. Hainbat herritan abian jarritako formulak harrera ona izan du Bergaran ere.



Erosle ugari gerturatu ziren zapatuko jardunaldian Udal Pilotalekura. Dendariak, orokorrean, pozik azaldu ziren jasotako erantzunarekin. JULIO CALLEJA

**KANPOKO EROSLEAK ERE BAI**

Zapatu eguerdian, dendetan baino jende ilara luzeagoa zegoen pilotalekuko sarreran jarritako puzgarrietan. Esan bezala, jende gehien zapatu arratsaldean batu zen, korrika proba amaitutakoan. Inguruko herrietako erosleak ere hurbildu ziren azokara eta, alde horretatik azokaren garrantzia azpimarratu zuten Bedelkarreko ordezkariek.

Azaroari begira, promozio berria jarriko dute abian; Bedelkarreko txartela duten erosleei, %5eko deskontua egingo zaie hilabete osoan zehar.



**Marije Olabarria**
Jolas

"Aukera polita da azoka, hainbat jenderen artean, denda ezagutzera emateko. Aurten bigarren urtez etorri gara eta pozik gaude. Egindako lanak merezi du. Aurten, gainera, data hobean egin dugu".



**Mari Carmen Nogueiras**
Mirari jantzi denda

"Martokon dugu denda eta herritarrei gerturatzeko aukera ematen digu azokak. Urtero etorri izan gara. Kanpotik ere etortzen dira erosleren batzuk eta esperientzia positiboa izan dugu orain arte.".



**Asun Askasibar**
Eroslea

"Aukera nahiko zabala dago, denetariko dendak daudelako; zapatu eguerdian bueltatxo bat eman ondoren, arratsaldean itzuliko gara berriz. Ideia ona iruditzen zait azokarena".

**Jose Luis Berraondo** > Bedelkarreko presidentea

## "Toki baten batzea interesgarria da eta salmentetan igartzen bada, hobe"

**E.M.** > BERGARA

**Jose Luis Berraondo da udaberritik Bedelkar dendarien elkarteko presidentea. Frontoian izan ginen berarekin.**



E.M.

**Dagoeneko hirugarren ekitaldia bete du azokak...**

Bai, halaxe da. Jaurlaritzaren eta Bergarako Udalaren laguntza daukagu azoka aurrera ateratzeko eta aurten 19 denda batu ditugu Udal Pilotalekuan. Etxe tresnak edo altzariak saltzen dituztenendako, esate baterako, ez da erreza gertatzen hemen egotea baina pozik gaude orain arteko esperientziarekin.

**Horrelako azokak Arrasaten edo Eibarren ere egiten dituzte.**

Data hauetan horrelako toki baten elkartzea interesgarria da eta salmentetan igartzen bada, askoz hobe... Alde horretatik, Bergaran abian jarritako aparkaleku sistema berria positiboa da erosleak erakartzeko.

**Oihalezko poltsak banatuko dituzue bezeroen artean...**

Azaroan Bedelkarreko txartela dutenendako deskontuak izango dira eta oihalezko poltsak, Bedelkarren eta Udalaren anagramarekin, laster banatuko diegu gure bezeroei.

**ARRASATE** > GAZTA DASTAKETA

# Gaztaren xehetasun guztiak dastatzen ikasi zuten Arrasaten


Parte hartu zuten herritarrek gaztaren xehetasun guztiak dastatzeko aukera eduki zuten Arrasateko Kulturaten. LANDER MIJÑAGORRI

## Debagoieneko VI. Jardunaldi Gastronomiko barruan antolatu zen dastatzea

**LANDER MUÑAGORRI** > ARRASATE
"Gazta hemendik aurrera beste era batera dastatuko dut" edo erosketa egiteko garaian ezaugarriak hobe begiratuko dituztela adierazten zuten gaztazaleek egubakoitzean. Izan ere gazta nola dastatu behar den, eta zein ezaugarri dituen azaldu zien Joserra Agirianok Kulturaten eskaini zuen gazta dastatzean. Ekimen hau Debagoieneko VI. Jardunaldi Gastronomikoen barruan antolatu zen. "Pena da jende gutxi inguratu izana, halakoetan gazta hobeto baloratzen ikasten baita" zioen gazta dastatzea amaitutakoan parte hartu zuen kidetako batek. 20 pertsona inguru zeuden KulturAteko klaustroan, baina inguratu zirenek gauza berriak ikasteko aukera izan zuten. "Orain arte ia beti gazta ketua jaten nuen, baina gaur ketu gabea dastatzen ikasi dut" zioen beste parte hartzaile batek.

Agirianok eskainitako eskolan, dastatzean aintzat hartzen diren ezaugarrien berri eman zuen. Gaztaren forma, azala, azalaren kolorea, begietara ematen duen itxura, usaina, testura, zaporea eta jan ondoren ahoan uzten duen zaporea nola baloratu behar den erakutsi zien herritarrei.

Dastatze hau egiteko ekimena positibotzat jo zuten izen emandakoek, agian afaldu aurreko mokadutxoa jan zutelako...

**Joserra Agiriano** > Idiazabal gazta Jatorrizko Izendapeneko dastaketa batzordeko kidea

## "Gaztaren produzkio industriala atzean geratu zaigu"


L.M.

**L.M.** > ARRASATE
**Kiloka Idiazabal gazta jan du bere bizian zehar Joserra Agiriano gazta dastatzaile eta epaileak. Berak ematen die aholkua artzainei euren produktuak hobetzeko, baita gazta dastatzeko oinarriak arrasatearrei ere.**

**Idiazabal gazta goraipatu duzu gaur behin eta berriro. Hala ere ikasgai bat dago gainditzeko...**

Hala da. Artzainak gustu eta kalitate munduan sartu dira, eta munduan zehar sari asko lortu dituzte. Horrek erakusten du zer nolako produktua daukagun gure artean, baina oraindik hobetzeko daukagu produkzio industriala. Ez da maila berera iritsi. Jatorrizko Izendapen hau gaur egun dena artzainengatik bihurtu da.

**Tradizioan geratzeak ez al dakar gaurkotasunari muzin egitea?**

Alderantziz. Garapen etengabean daude artzainak. Horretarako garbitasuna izan da gakoa, baita hobetzeko daukaten gogoa ere. Orain dela 30 urte eman zen euskal sukalde berriaren 'boom'-a orain gaztagintzara etorri dela esan daiteke.

**Arantzazuko eskolak hor zerikusirik izango du...**

Bai. Orain arte artzainek ez zekizkiten gauza asko ikasi dituzte gaurko gazteek. Garbitasuna, ekonomia, eta baita genetika ere. Horri esker gaur egungo artzain gazteek ardi osasuntsuagoak dauzkate. Idiazabal gaztak oraindik etorkizun oparoa dauka aurretik.

**ARRASATE** > XABOI TAILERRA

# Arrakasta itzela Bedoñan egindako xaboi tailerrean


Parte hartu zutenak gustura aritu ziren xaboia egiten. JULIO CALLEJA

## Deitu duen jende guztiari aukera emateko, hurrengo zapatuan ere antolatu dute tailerra

**L.M.** > ARRASATE
"Arrakasta itzela" halaxe adierazi dute antolatzaileek zapatu goizean egin zen xaboi tailerraren ondoren. 12 pertsonentzako lekua zegoen tailer honetan, eta izan duten dei oldea dela eta, hurrengo larunbaterako beste hitzordu bat antolatzea beste irtenbiderik ez dute izan. "Hurrengo asteburuko plazak ere beteta daude, eta agian urtarrila edo otsailean egingo dugu beste tailer bat" Dorleta Gorosabel antolatzailearen hitzetan.

Sei pertsonako bi lantaldetan banatuta, xaboi gordina egin zuten batzuk, esentziazkoa egin ahal izateko ezinbestekoa. Lau esentziazko xaboiak egin zituzten: aloe vera, osin, ilen kultibatu (calendula) eta izpilikuarekin (lavanda) egindakoak. Xaboia egitea gainera, "xamurra da, etxean egiteko modukoa" dio Gorosabelek.



Euskal dantzen ikastaroan ederki pasa zuten zapatuan, Kulturaten. J. CALLEJA



Hainbat jolas egiteko aukera izan zuten haur eta gurasoek, egubakoitzean. J. CALLEJA



Gari Lopez de Munainek emandako haur-masaje ikastaroan hamar gurasok hartu zuten parte. JULIO CALLEJA

**ARRASATE** > GURASOLANDIA

# Guraso eta haurrei zuzendutako jolasak Txatxilipurdiren eskutik

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Haur eta gurasoendako ekitaldi eskaintza zabala izan da aurten ere Txatxilipurdi elkarteak antolatutako Gurasolandia egitarauaren barruan. Hizkuntzaren transmisioan, gurasoen rola azpimarratu nahi dute antolatzaileek eta haurren eta gurasoen arteko lotura indartzeko helburuarekin, jolasak, masaje ikastaroa edo ipuin kontaketa egin dituzte aste bukaeran. Martitzenean, hilaren 2an, jarri zuten abian Gurasolandiaren bigarren ekitaldia eta atzo, domeka, bukatu zen ekintza sorta.

**HAURRENDAKO MASAJEA**

Gari Lopez de Munain arrasatearrak haur-masaje tailerra eman zuen zapatu goizean. Hamar guraso, amak zein aitak, batu ziren Okendoko ludotekan. Lopez de Munainen hitzetan, "ukimenaren bitartez haurraren garapen psikologikoa, emozionala eta fisiologikoa laguntzen dugu, beste hizkuntza moduko bat da ukimena eta umearekiko lotura indartzeko guztiz baliagarria. Gizonek zein emakumeek egin dezakete, eta beti ere komeni da haurra lasai dagoenean, bainua hartu eta gero esaterako, ematea masajea".

Zapatu arratsaldean ipuin kontaketa egin zuten Vanesa Gonzalezek eta Irune Iribekanposek eta domekako ekitaldiak bertan behera utzi zituzten eguraldi txarragatik.



**Eneko Barberena**
Txatxilipurdi

"Orokorrean Gurasolandiaren balorazioa positiboa da. Edukiz saio interesgarriak egon dira eta erantzun aldetik denetarik egon da. Orain, urtean zehar, egindakoari jarraipena ematea da kontua ".



**Jon Urdineta**
Aretxabaleta

"Haur masaje ikastarora etorri gara bikotea eta biok. 20 hilabeteko haurra daukagu eta aukera polita iruditu zitzaigun. Ukimenaren bitartez badago haurra lasaitzeko aukera eta sentsazio ederra da".

**ZER DIO MANEX AGIRRE BERTSOLARIAK?**



JULIO CALLEJA

**OÑATI** > MAHAI-FUTBOLA

## Queille eta Lamas txapeldun

Oñatiko Gaztelekuko XVI. Futbolin txapelketako sari banaketa egin zen pasa den egubakoitzean. Txapelketa astebete lehenago jokatu zen, eta bertako garaileak izan ziren Mikel Quelle eta Aitor Lamas gazte oñatiarrak. Denetara 12-18 urte arteko 21 bikotek parte hartu zuen Gaztelekuko urteroko zita bihurtu den txapelketan. Sari banaketan eta txapelketan zehar egondako giro ona nabarmendu dute antolatzaileek.

**ZER DIOTE DEBAGOIENEKO BASERRITARREK?**

**OBRAK** > ZALDIBARKO OINEZKOEN PASABIDEA

# Zubi modernoa Zaldibar eta Gelmagunea lotzeko

Barandak kolorez alda daitezkeen led argiak (kontsumo oso txikikoak) izango ditu, zubiaren estruktura eta kristalezko baranda argiztatzeko

**UBANE MADERA**> ARRASATE
2,50-2,80 metroko zabalera, 22 metro luze den pasabidea, 80 tona pasako pisua, zoru ez labainkorra (aglomeratua, egurra labainkorragoa delako), kristalezko baranda, eskudel oxidaezina eta argiztapen bikoitza. Hori guztia izango du Gelmagunea eta Zaldibar lotzeko oinezkoen zubiak.

**GABONETARAKO IPINITA**
Burgosen dabiltza eraikitzen, enpresa espezializatutako batean, eta urte amaierarako ekarriko dute, Gabonetarako gura duteeta ipinita izan.

"Errepidea moztu egin beharko da hura ekartzeko, 22 metroko pieza osorik ekarriko dutelako. Habeak ere batera ekarriko dituzte, eta erdiko pasabidea muntatuta. Guztiaren muntaia egun bakarrean egingo dugu, eta gero faltako lirateke xehetasunak muntatzea". Hala kontatu du Carlos Martinek, zubiaren enkargua duen Obenerreka enpresako ordezkariak.

Izan ere, Arrasateko Udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, Obenerrekaren (Gelmako etxeen egilea) ardura da zubia.

**KOLORETAKO LED ARGIAK**
Xehetasunetan sartuta, zubiaren baranda bitxia izango da: kristal bikoitzekoa izateaz gainera, argiak izango ditu ezkutatuta eskudelean. Argi horiek, gainera, kolorez alda daitezke (urdina, gorria, berdea, morea...) eta zubiaren estruktura eta kristalezko baranda bera argiztatuko dituzte.

Bestalde, zubiak argi gehiago ere izango ditu, beheko partean, zorua argiztatzeko.

Argi horiek guztiak kontsumo baxukoak izango dira, led motako argiak, alegia.

**130.000 EURO GUTXIENEZ**
Zubiaren gutxieneko kostua 130.000 euro da; baina litekeena da garestitzea, oraindik azken xehetasunak lotu barik dituztelako, "baliteke %20 garestitzea, edo %40... batek daki; amaierara arte ezin jakin".

SKATEPARKEA, PERGOLA ETA BESTE

## Skateparkea egiteko hilabete dute


Parke itxura hartu dute obrek. U.M.

Zubia, skateparkea, pergola eta azken xehetasunak falta dira Zaldibarko oinezkoen ibilbidea bukatzeko. Data ipini dute: abenduaren 15a. Aurreikusitakoa baino apurtxo bat beranduago da hori. Izan ere, aurreikusi bako lan batzuk egin behar dituzte (skateparkea, adibidez), eta, besteak beste, eraikuntzaren grebaren eragina ere izan dute. Kontuak kontu, ingurutik pasaz gero dagoeneko atzeman daiteke ibilbide eta parke berriak izango duen itxura.

Skateparkeari dagokionez, justu joan den astea ezkero hilabete dute hura bukatzeko; horixe da Udalak finkatu duen epea. Pergolari dagokionez, berriz, altuera handitu egin diotela-eta (2 metrotik 2,20 metrora, pentsatu dutelako akaso baxuegia zela), hura ere ipintzea falta da. Oinezkoen zubia bukatu eta errepidera arte iritsiko da, parkearen bazterrean dauden eraikinetatik gertu.

Eta ostera, landare eta zuhaitzak (asteotan hasiko dira ipintzen), bankuak (18), banakako jarlekuak (6-7), iturria, barandaren zati bat, 17 aparkaleku publiko eta erreka aldeko landareak txukuntzea falta da, "azaroan bukatuko ditugu lan guztiak", dio Alberto Barrosek, obraren arduradunak.


Oinezkoen zubiaren zati baten muntaia egin dute, ikusteko eta erakusteko zelan geratuko den. U.M.


IRATI GOITIA

## 40 kiloko kalabaza, Gesalibarren

Gesalibar auzoko Abarrategi goikoa baserrian sekulako kalabazak batzen dabiltza. Argazkikoak 40 kilo ditu, baina inguruan dituenak ere ez dira atzean geratzen: 15-20 kilo pasa dituzte guztiek ere. Maria Luisa Ozaetak kontatu du ez dutela inolako trukurik, "gauean ura bota" besterik ez dietela egiten. Ur magikoa izango da, bada!


Ospitalearen atzeko aldean dago Biurturen pabiloi zaharra. U.M.

**OBRAK**> PABILOIA BOTA EGINGO DUTE

# Sei aste pasa baino lehen bota egingo dute Biurtu

Tailer zaharreko lurrak garbitu eta orubea txukun uztea da Udalaren asmoa

**U.M.** > ARRASATE
93.441 euro eta sei aste. Hori ezarri du Arrasateko Udalak Biurtu fabrikaren pabiloi zaharra bota eta haren azpian eta inguruan dauden kutsatutako lurrak garbitzeko.

Gero, Udalaren helburua da orube hura "txukun" uztea, etorkizunean emango dioten erabilerarako. Erabilera hori zein izango den ez dute zehaztu udal iturriek, baina kontuan hartuta Biurtu ospitale atzean dagoela eta inguru hartan sekulako aparkaleku gabezia dagoela, pentsatzekoa da aparkaleku moduan erabiliko dutela gidariek, beste gune batzuetan gertatu den moduan.

**AUTOAK, ZALDIBARRERA**
Bestalde, orain arte Biurtu pabiloian gorde izan ditu Udalak garabiak erretiratu izan dituen ibilgailuak. Bada, aurrerantzean, Zaldibarren gordeko dituzte, Udaltzaingoaren egoitzaren atzeko aldean.

**KULTURA** > ZUZENEKO MUSIKA

# Emanaldi landu, sakon eta lasaiarekin estreinatu ditu Garik 'Kooltur ostegunak'

Harrera ona izan zuen Kooltur ekintza taldearen ekimenak: 200 lagunetik gora elkartu ziren gaztetxean Gariren proposamen berria zuzenean jarraitzeko



Garik irudi, forma eta kolore ezberdinak tartekatzen zituen pantaila handi bat izan zuen atzean. Noski, irudiok bat zetozen kantuen esanahiarekin. IMANOL SORIANO

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

200dik gora lagun bildu ziren atzo gaztetxean Gariren kontzertua ikusteko. Ikusleen artean, adin ezberdinetako jendea: belaunaldi ezberdinak batu ziren gaztetxean. Argi geratu zena da ez dela Hertzainak garaiko Gari: hori espero zutenei musikari legazpiarraren azken proposamena ez zitzaien larregi gustatuko. Rock gogorretik urruti, oso bestelako emanaldia eskaini zuen Garik, haren azken diskoa –*16 lore*– aintzat hartuta: teknikoki oso emanaldi landua eta sakona, oso sakona.

Mikel Moyano algortarrarekin eta Mikel Azpiroz debarrarekin etorri zen Gari, hirukote modura. Hamaika musika aparailuren artean –ikuslegoko mugikorren bat akoplatu izanak arazotxo batzuk sortu zizkieten–, eta etengabe irudi eta kolore ezberdinak tartekatzen zituen pantaila handi bat atzean zutela, ordubetez aritu ziren. Ez motz eta ez luze, ondo. Are gehiago, eguena zela jakinda.

Gainera, azken proiektu horretan egin ohi duten atsedenaldia ez zuen egin; ikusleek eskertu zuten, gehienek betebeharrak zituzten-eta hurrengo egunean.

**BETIKO ABESTIEN BESTE ALDE BAT**

Azken proiektuarekin asko gozatzen duela erakutsi zuen musikariak eta jarrera aldetik ezin zaio gehiago eskatu. Esandako moduan, musikari dagokionez eguenean gaztetxean izan zen Gari ez zen Hertzainak-eko Gari. Baina bai pertsona moduan, ordea. Hala, gogoan izan zituen Rip-eko *Portu* eta *Mahoma* eta, finean, "Arrasateko nire familia". Nostalgiarako txokoa ere izan zuen gauak, beraz.

Hertzainak-en zenbait kantu jo zituen baina ez orduko erara. Askok ez zuten ulertuko *Ta ezer ez da berdin* edo *Aitormena* kantuak halako doinu elektroniko eta ahots zein koru sakonekin entzutea. Izan ere, Gari bere formarik puruenean taularatu zen, *biluztu* egin zen agertoki gainean. Sentimenduz jositako ahotsez bustitako saioa izan zen, ezberdina. *Ta ni banoa*-rekin agurtu zen.

**EKIMENAK, HASIERA BIKAINA**

Hasi dira *Kooltur Ostegunak*, ondo hasi ere. Eguen batean 200 sarrera baino gehiago saltzea ez dago batere txarto.

DATUA

**200**

**LAGUN BAINO GEHIAGO**

Herritarren artean ikusmin handia piztu du *Kooltur Ostegunak* ekimenak. Lehen kontzertuan 200dik gora lagun elkartu ziren Gari ikusteko; ez da zifra txarra. Ea datozenetan bera gertatzen den.

EGUEN HONETAN, ZER?

## The Snobs taldearen punk-rock landua

The Snobs talde donostiarrak hartuko dio erreleboa Gariri. Jorge Reboredo Nuevo Catecismo Catolico taldeko lehen gitarra joleak eta Señor No-ko Xabik, oraingoan baxu jole moduan, punk-rock azkarra eta landua eskainiko dute. Eskarmentu handiko musikariak dira, beraz, eta joan den eguneko Gariren saio lasaiaren ondoan, mugimendua eta izerdia ziurtatzen dute. *Nuestros puños son legion* da euren ereserkia eta ikuskizuna bermatuta dago. Hilaren 11n izango da, gaztetxean (22:00). Sarrera bost euro ordaindu beharko da.



Reboredo, The Snobs-ekin. THE SNOBS

**POLITIKA** > BAKEA ETA NORMALIZAZIOA

# "Agertoki berria finkatzen laguntzeko" gertu agertu da Udala

Prozesua bide politiko eta baketsuetatik garatzearen aldeko mozioa onartu zuten egueneko osokoan

**J.B.** > ARRASATE

Gernikako Ituna abiapuntu moduan hartuta, egueneko osoko bilkuran eskatu zuten "Euskal Herrian ireki den prozesua garatzen eta finkatzen laguntzeko konpromisoa erakustea". Adierazi zuten prozesu hori bide politiko, demokratiko eta baketsuetatik normalizazio eta bakea iritsitakoan amaituko dela eta bien bitartean "prozesua oztopatzeko ahalegin guztiak salatuko" dituztela. Mozioa onartu egin zuten, PSE-EEren eta PPren kontrako botoekin, baina gainerako guztien aldeko botoekin.

EAJk aldeko botoa eman zuen baina Rafael Uribarrenek kexa agertu zuen mozioa sinatzeko gonbiterik jaso ez zutelako.



Egueneko osokoaren une bat; Pello Urizar (EA) eta Julia Monge (Alternatiba-Zutik) zinegotziak ez ziren egon. UBANE MADERA

> ANTZERKIA

### Jatorri argentinarra duen antzezlana domekan, Amaian

Los Modernos taldearen Fo antzezlana ikusteko aukera izango da domekan, hilak 14, Amaia antzokian. Umore ulerterraza eskainiko dute, errealismoz eta esanguraz jositako umorea. Emanaldia 19:30ean hasiko da.

**oharrak**

57KO KINTOEN BAZKARIA

**> Azaroaren 13an batuko dira**

Arrasaten 1957an jaiotakoek bazkaria egingo dute zapatuan, hilak 13. Kajoi Tabernan egingo dute hitzordua, 13:30ean. Izena emateko (60 euro) Euskadiko kutxako 0471068086 kontu korrontean sartu behar da dirua.









Goiko irudian garaia eta behekoan birsortzearen hiru irudi. GOIENKARIA

**JENDARTEA** > ONDAREA

# Agarreko garaiaren birsortzea, sarean

Iñaki Aspiazu arkitektoak egin du: "Gure herri-arkitekturaren harribitxi bat ezagutzera emateko"

**MONIKA BELASTEGETI** > BERGARA

Iñaki Aspiazu arkitektoak Agarreko garaiaren (horreoa) birsortze birtuala egin du. *aspiazu.com/horreo/horreo.html* helbidera jotzen dutenek garaiaren egitura nolakoa den eta nola osatuta dagoen ezagutzeko aukera izango dute, urratsez urrats. Hain justu ere, hamaika pausotan eraiki egiten du Bergarako arkitektoak Agarre auzoko garai ezaguna.

**25 URTE BERRIZTATU ZUTELA**

25 urte bete dira Aspiazuk berak Iñaki de Miguel artisauarekin eta Jesus Arregi arkitekto teknikoarekin garaia zaharberritu zutena, Udalaren eta Aldundiaren eskariz. Bada, urtemuga horren barruan, eta "gure herri-arkitekturaren bitxi bat ezagutzera emateko" egin dute birsortze birtuala.

Aspiazuk nahiko luke, era berean, sareratze horrek balio izatea "gure lurraldean eraikitzeko modu ezezagun baten eredu den eta bere barruan gure arbasoen eraikitze-jakinduria gordetzen duen eraikin hori errespetatzeko eta maitatzen laguntzeko". Bukatzeko, hau dio: "500 urtetik gorako ondare hori babesteko eta mantentzeko gai izan beharko genuke, datozen belaunaldiek aintzat har dezaten".

## oharrak

KINDATA
**> 1943an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 27an**
Azpeitxin egingo dute, 14:30ean. Izenematea hilaren 24ra arte da, Arantza Askasibarri (943 76 16 13) eta Juan A. Fernandezi (943 76 53 22) deituta.

KINDATA
**> 1939an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an**
Pertxan egingo dute bazkaria, 14:30ean. Aurretik, txikiteoa egingo dute, 13:00etan Fraiskozuritik abiatuta. Izena azaroaren 9a baino lehen eman behar da, Eulalia Elgarrestari (943 76 24 79) edo Pello Garitanori (943 76 28 58) deituta.

KINDATA
**> 1933an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 21ean**
Azpeitxi jatetxean egingo dute. Aurretik meza egingo dute, 12:30ean, san Pedron. Izenematea Intxorta tabernan da, 6 euro aurreratuta.

KINDATA
**> 1948an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an**
Zabala jatetxean egingo dute. Harako urbanoa 21:00etan abiatuko da Santa Marina ostetik. Izena azaroaren 17a baino lehen eman behar da eta horretarako 55 euro sartu behar dira Euskadiko Kutxan ireki duten kontu korrontean.

KINDATA
**> 1938an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an**
Azpeitxi jatetxean gingo dute. Izena emateko jo antolatzaileengana, Miguel Lazkanorengana edo Mari Carmen Leturiarengana.

KINDATA
**> 1935ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 21ean**
Zumelaga jatetxean egingo dute, 14:30ean. Izena emateko 12 euro aurreratu behar dira azaroaren 17a aurretik Euskadiko Kutxan.

KINTADA
**> 1969an jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 20an**
Tartufon egingo dute. 13:00etarako egin dute hitzordua, Deportivon. 14:00etan talde argazkia egingo dute pilotalekuan eta 14:30ean autobusa hartuko dute bazkaltzera joateko. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Deportivon, 20 euro aurreratuta.

KINTADA
**> 1953an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 20an**
Txarrantxan egingo dute, 21:00etan. 23:30ean dantzaldia egongo da. Izena emateko azken eguna azaroaren 18a da, Txarrantxan eta ONCEko kioskoan, 15 euro aurreratuta.

KINTADA
**> 1944an jaiotakoek afaria egingo dute azaroaren 27an**
Azpeitxi jatetxean egingo dute, 21:00etan. Aurretik, 19:00etan, meza egongo da Santa Marinan. Izenematea azaroaren 22a baino lehen da, Bodegon Hernandezen (943 76 20 43) eta Sanchez ile-apaindegian (943 76 23 70).

KINTADA
**> 1930ean jaiotakoek bazkaria egingo dute azaroaren 13an**
Zumelagan egingo dute. Bazkariaren aurretik talde argazkia egingo dute Ibargarain, 14:00etan. Izenematea 943 76 22 22 telefono zenbakian da.

KINTADA
**> 1943an jaiotakoek (55eko kintoak) bazkaria egingo dute**
Azaroaren 20an egingo dute, Erreki erretegian. 14:00etan txikiteoa eta talde argazkia egingo dituzte eta bazkaria 14:45ean izango da. Izenematea Errekin da, 12 euro aurreratuta.

## auzoko programa

### Lehen galderak badu irabazlea

Auzoko lehiaketak badu lehen irabazlea: Irene Azkargorta.

Udaleko Kultura sailak emandako Zabalotegi aretoko ikuskizun baterako bi sarrera jasoko ditu.

auzokotopagunea.com

**AUZOAK** > OSINTXU

# Antzerkia, musika eta beste egongo dira azaroan Osintxun

Egubakoitzean 'Piano bat bertsotan' egongo da, 22:30ean, Txuringon

**M.B.** > BERGARA

Osintxuko auzo batzordeak Gaztañatan delako kultura agenda prestatu du azarorako.

Sei ekitaldiz osatutako egitaraua da eta atzo abiatu zen, ludotekan egin zuten film emanaldiarekin.

Hurrengo saioa egubakoitzean izango da. Hain justu ere, *Piano bat bertsotan* ikuskizuna egongo da, 22:30ean, Txuringon.

Hilaren 21ean, Poxpolo ta Konpainiak *Segi jotzen* izeneko antzezlana egingo dute, 17:30ean, pilotalekuan.

**GAZTAINAK ETA SAGARDOA**

Hilaren 22an Arimen Eguna ospatuko dute gaztainak jaten eta sagardoa edaten, 19:00etan, plazan. Hilaren 26an, Nau taldeak emanaldia egingo du, 22:30ean, eta, egitarauari bukaera emateko, hilaren 28an Erretiratuen Eguna egingo dute: Txuringon bazkaria egongo da, Duo Plaentxik alaituta.

ZER DIO GANBARA ABESBATZAK?

ZER DIO GOIKOBALU ABESBATZAK?

AZPIEGITURAK

# Udalak beste bi errepide dauzka bere ardurapean

Urteaga kalearen zatia eta Angiozar kalearen hasiera eman dizkiote

L.M. > BERGARA
Gipuzkoako Foru Aldundiak Urteaga kalea zeharkatzen duen GI-632 errepidearen titulartasuna eman dio Bergarako udalari. Transferitutako errepide zati honek, 1,2 kilometroko luzera dauka. Ekialdetik egin den saihesbidearekin herrira sartzeko beste errepide-adar batean bihurtu da GI-632 errepidea. Horrekin guztiarekin, funtzionalitatea aldatu egin zaio aipatutako errepideari, eta hori dela eta Bergarako udalari eman zaio bere gaineko titularitatea.

Hau guztia kontuan hartuta, bi erakundeek hitzarmen bat sinatu berri dute, eta besteak beste, errepide zati hau baldintza onetan transferitzeko egin beharreko konponketen balorazioa bildu du akordioak.

Era horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak egingo dituen konponketek 138.000 euroko aurrekontua daukate, Bide Azpiegituretako departamenduak aditzera eman duenaren arabera.

**ELGETARAKO BIDEA**
Horretaz gain, Bergaratik Elgetara Angiozartik doan errepidearen hasierako zatia (GI-330) ere udalaren esku geratuko da hemendik aurrera. Errepide zati honek orotara 480 metroko luzera dauka. Errepide honen inguruan egin diren aldaketa urbanoek eta bestelako aldaketen ondorioz, errepideak izaera urbanoa hartu duelako eman da transferentzi hau.

> POLITIKA

## Atxiloketen aurkako mozioa aurkeztu izana salatu du PSE-EEk

Prentsa ohar baten bitartez, PSE-EE alderdiak kritikatu du hilaren 25eko osoko bilkuran ezker abertzaleak Segiren aurkako operazioaren harira aurkeztutako mozioa, "hura onar zedin erabilitako moduagatik eta edukiagatik". Gehitu dutenez, kontra bozkatu zuten ez dutelako "zalantzan jarriko erabaki judizialik" eta ez diotelako "babes politikorik eman nahi ezker abertzalearen soflamei".

**Juan Jose Altuna** > Artista

# "Pinturan norberak bere emozioak bilatzen eta bere bidea egiten saiatu behar gara"

LANDER MUÑAGORRI > BERGARA
**Juan Jose Altuna (Arrasate, 1943) Bergarara ezkondu zenean hasi zen margolaritzan barneratzen. Orain *Ibilbidea* izeneko atzera begirako erakusketa jarri du ikusgai Bergarako Aroztegi Aretoan. Bertan bildu ditu 1975etik gaur egunera arteko lanen ibilbidea eta garapena erakusten duten hainbat koadro. Berarekin hitz egin dugu erakusketaren inguruan.**


Juan Jose Altunak Aroztegin erakusketa jarri du. LANDER MUÑAGORRI

**Nondik sortu da atzera begirako erakusketa bat jartzeko ideia?**
Beart elkarteko kideek animatu ninduten atzera begirako erakusketa bat jartzera. Elkartean bertan maila oneko margolariak daude, eta horrek animatu ninduen.

**35 urte hauetako garapena ikusi ahal izango da orduan erakusketan zehar...**
Bergaran bizitzen ari nintzenean hasi nintzen margolaritzari gogor heltzen, eta orduz geroztik jarraipen bat egon da nire ibilbidean. Horregatik, atzera begirako bat bezala har daiteke, baina hori baino gehiago ikerketa baten isla dela iruditzen zait. Esaten da dena eginda dagoela, eta ez dut esaten eginda egongo ez denik. Baina norbera beti saiatu behar da bere bidea egiten, eta bere emozioak bilatzen. Eta emozioa aldaketak egiten joatea da. Nire kasuan, barrualderako ikerketa egin dut gehienbat.

**Eta zein fruitu atera da ikerketa horretatik guztitik? Nolako garapena izan da?**
Ikerketa hori hasteko garaian, hasi naiz alderdi figuratibo inpresionista normal batetik, edo hobe esanda inpresionismotik honaino egin den figuratiboan. Maila horretan, espresionismora sartzen joan naiz, eta hortik gauza geometrikoak egitera. Azken pausuan, minimalismora joan naiz, marrazkia marra batekin bakarrik lortzeko inpresio edo emozio hori bilatzera hain zuzen.

**Zure lanetan behin eta berriz errepikatzen dira gai urbanoak. Zer eman dizu kaleak?**
Dena eman dit. Baina horretaz gain, betidanik gustatu izan zait arkitektura. Gizona gizon denetik, beti egon izan da eraikinak egiten. Hein horretan, niri beti gustatu izan zait espazio horiek nola lortzen diren, eraikitzearen prozesutik bertatik. Azken finean, arkitektura eskultura handi bat da, eta gu bertan bizi gara. Horregatik, askotan errepikatu izan den gaia da, baina ez paisaiak gustatzen ez zaizkidalako. Arkitekturarekin harreman zuzenagoa eduki dudalako egiten dut kaleak margotzeko hautua.

**"Arkitektura eskultura handi bat da, eta gu bertan bizi gara"**

**Hortik barrura, interiorismora ere salto egin izan duzu zure lanetan...**
Niretzako dena da etxe bat intimismoarekin zerikusia duena. Barruan gauden guztiok elkartuta gauden arren, ez gaude elkartuta. Bakoitza bere etxean, bakardade horretan dago. Hori irudikatzeko, barruko aldera begiratzen dioten lanetan aulki huts baten kontzeptua behin eta berriro errepikatzen da, gela huts baten erdian. Bonbilla bakartiaren kontzeptua ere behin baino gehiagotan errepikatzen da lanetan.

**"Nire obran zehar barrualderako ikerketa egin dut gehienbat"**

**Azken garaian daramazun garapena bestelakoa da ordea...**
Margotzea keinu bat da, eta batez ere kolore bat ezartzea. Kolorerik erabili gabe eginda dago *Guneak eraikitzen* (2007) koadroa, eta bertan bolumena nabarmentzen da. Marrazki hauek kolorea sartzen diezunean gehigarri bat irabazten dute. Koloreak hartzen du garrantzia eta erdi-abstrakzio bat egiten dut, gazteleraz esaten den bezala "deconstrucción de lo construido" egiten dut.

**Eta hori nola lortu duzu?**
Hasteko eta behin, ezeri begiratu gabe hasi behar duzu marrazten. Zerbaiti begira hasten baldin bazara, azkenean kopiatzen zabiltza. Irudia denok daukagu buruan, eta ikusitakoa beti gogoratzen dugu nahi ala ez. Askotan ez daukagu inora begiratu beharrik marrazteko. Ez daukat pitxer bat begiratu beharrik marrazteko, bai baitatik nolakoa den.

**Erakusketan ordea badaukazu pitxer baten marrazkia...**
Bai, baino loreak dauzka. Hala ere, koadro hori erronka bat izan zen, ikasleek beti esaten baitzidaten ez nindutela sekula loreak marrazten ikusi, eta ez zitzaizkidala gustatzen. Adarra jotzeko zioten baina hala ere koadro hori marraztu nuen.

**Erakusketako bodegoi bakarra da gainera.**
Ez da bakarra, hondartzako mahai baten koadroa ere badago, bodegoi bezala kontsideratu daitekeena.

**Azken denboraldian eskulturarekin ere hasi zara. Nolakoa izan da prozesua?**
Eskulturarekin hastean, estudioan sobratutako egur puskekin hasi nintzen. Beti eduki izan dut gogoa maketa edo eskulturak egiteko, baina maila horretan esan daiteke dena eginda dagoela. Oteiza eta Txillidaren mugimenduekin, ildo horretan ez dago askoz gehiago egiterik. Nire erronka izan da hortik ihes egitea, eta etxe multzo bat egitea.

**KOMUNIKABIDEAK** > TXAPA IRRATIA

# Txapa irratiak programazio berria aurkeztu du

Aurtengo nobedadea 'Sasi guztien azpitik' irratsaioa da

L.M. > BERGARA
Txapa irratiak 26 urte daramatza asanbladan oinarritutako irratsaio librea antolatzen. Aurten ere ildo horiei eutsi die aurkeztu berri duten programazioan. Teknologia berrietan Arrosa irrati sarean ere presente egoten jarraituko dute.

Aurtengo nobedadea *Sasi guztien azpitik* irratsaioa izango da. Bertan Bergarako Gazte Asanbladak hartzen dituen erabakien berri emango da asteazkenetan 22:00etatik aurrera. Astelehen eta ostiraletan irratira heltzen diren diskoen aurkezpenak egingo dira 15:00etan. *Berbenir, Ametsetako lurra, Kanpora begira, Haundikeittan, Kaleko mobida* eta beste hainbat irratsaio eskaintzen jarraituko du irratiak.

Horretaz gain, Arrosa irrati sareko irratsaioak izango dira Txapa irratiaren parrilla osatzeko.

Informazio gehiago *www.txapairratia.org* eta FM 97.20-an.

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2010eko azaroaren 8a

**FEDERAZIOA** > TRAMITAZIOAK

# Mendiko aseguru txarteletan aldaketak egin daitezke egunotan

2011ko mendi aseguruan aldaketak egin behar dituenak hilaren 10ean, 11n, 16an eta 17an izango du aukera Aloña Mendiko mendi saileko lokalean

**ARANTZAZU EZKIBEL** > OÑATI

Aloña Mendiko mendi sailak aseguru txarteletan tramitazioak egiteko kanpaina jarri du martxan. Azaroaren 17a baino lehen eman beharko da aseguruan egin behar diren aldaketen berri.

**LOKALEAN BERTAN EGONGO DIRA**

Aloña Mendik Atzeko kalean duen lokalera joan beharko da horretarako. Ateak zabalik izango dituzte azaroaren 10ean, 11n, 16an eta 17an, 19:30etik 21:00etara.

Adierazi dute posta elektroniko bidez ere egin ahal izango direla aldaketak federatu txartelean, *alonamendi.mendi@gmail.com* helbidean. Baina ez dituzte kontuan hartuko telefono bidez egindakoak. Hortaz, bulegora bertara joanda edo posta elektroniko bidez bakarrik egin ahal izango dira aldaketak; betiere, azaroaren 17a baino lehen. Aseguru berria egin edo baja eman gura duenak ere hilaren 17rako eman beharko du horren berri.

**EDOZEIN ALDAKETA**

Orain arte federatuak izan diren bazkideek edozein aldaketa egin behar badute, adibidez, helbide aldaketa edo kontu korronte aldaketa... horren berri ere Aloña Mendin eman beharko dute. Azaroaren 17a baino lehen bazkideak ez badu aldaketen gaineko inolako abisurik eman, 2010eko estaldura berarekin jarraituko duela adierazi dute ohar bidez Aloña Mendiko kideek.

**KUOTAK, HIL AMAIERAN**

2011ko kuotak pasako dituzte 2010eko azaro amaieran, hirugarren edo laugarren astean. Bazkide guztiei pasa diete oharra mezu bidez.




A.E.

## Hainbat zerbitzu emango dituzte Bidebarrietan

Udaletxetik Bidebarrieta kaleko 24. zenbakira hainbat zerbitzu eraman dituzte. Urri erdialdean Oñargik eraman zuen bulegoa Bidebarrietara; bada, orain, Suradesa, basozain zerbitzua eta nekazaritza bulegoa ere Bidebarrietan egongo dira. Suradesak martitzenetan emango du zerbitzua, 09:45etik 13:00etara; basozainak eguenetan, 08:30etik 13:00etara; eta nekazaritza bulegoak egubakoitzetan, 09:00etatik 13:00etara. Telefono zenbakia udaletxeko bera izango da: 943 78 04 11.



Ikusi Makusi taldeko kideak. GOIENKARIA

**JARDUNALDIAK** > ANTZERKIA

# Erretiratuen eskutik, antzezlan bat egunero

Emanaldi guztiak Santa Ana aretoan izango dira, 17:30ean, gaurtik egubakoitzera

**A.E.** > OÑATI

Gaur hasiko dituzte erretiratuek antolatutako antzerki topaketak. Gipuzkoako hainbat herritako antzerki taldeak izango dira Santa Anan.

Gaur, Hondarribiko Kasino Zaharra taldekoak igoko dira agertokira. *Las confesiones del diablo* lana eskainiko dute. Bihar, *Obras son amores* lana La ONCE taldearekin; etzi, *Hiru desioak* lana Urre Kuttun taldearekin; eguenean, *Semblanza del Quijote* lana Irri Makila taldearekin; eta egubakoitzean, Ikusi Makusi oñatiarren txanda izango da.

**DATORREN ASTEAN, GEHIAGO**

Datorren asteari begira, beste hainbat ekintza antolatu dituzte: kontzertua agustindarretan, Jose Antonio Azpiazuren hitzaldia, Errioxara irteera eta bingo berezia Pake Lekun.

**POLITIKA** > BIKTIMAK

# Udalbatzak Memoriaren Egunarekin bat egin du

Azaroaren 10a, eguaztena, izendatu dute Memoriaren Eguna EAEn

**A.E.** > OÑATI

Udalbatzak bat egin du Eusko Jaurlaritzarekin, EAEko hiru lurraldeetako batzar orokorrekin eta Eudelekin. Hala, azaroaren 10a Memoriaren Eguna izendatzea erabaki dute –Aralarko zinegotzia abstenitu egin zen–. Datorren eguaztenean elkarretaratzea egingo dute, 12:00etan, udaletxe aurrean.

**OÑATI EZKERRETIK**

Oñati Ezkerretik taldeak adierazi du "oroimena eta errekonozimendua ezinbestekoak direla gatazka politikoa gainditzeko". Diote ekimenarekin ados daudela, betiere "biktima guztiak errekonozituz gero".

EAEko Herrizaingo Sailak proposatu zuen azaroaren 10a izatea Memoriaren Eguna, alde bateko edo besteko biktimarik egon ez den eguna delako.

**KULTURA** > MUSIKA ESKOLA

# Musika eskolako gaztetxoen kontzertua eguenean

San Martin egoitzan izango da, 18:30ean

**A.E.** > OÑATI

San Martin egoitzan Kultura Astea ospatuko dute. Horren barruan, Jose de Azpiazu musika eskolako gaztetxoek kontzertua eskainiko dute eguenean, 18:30ean, San Martin egoitzan. Musika eskolatik adierazi dute hainbat taldek parte hartuko dutela: pianoak, biolinak, txirulak, gitarrak...

**SANTA ZEZILIA EGUNA**

Bestetik, musika eskolan gertu dute Santa Zezilia eguneko egitaraua. 150 neska-mutiko ibiliko dira kalejiran, akordeoi taldearekin eta trikiti-pandero taldearekin. Azaroaren 22an izango da, 17:30ean, Oñatiko kaleetan. Horren ondoren, txokolate-jana izango dute gaztelekuan.

## oharrak

IKASTAROAK

**> Gaztetxoen pintura ikastaroan izena eman daiteke oraindik**

Udalak 2010-2011 ikasturterako antolatutako ikastaroak martxan daude. Hala ere, gaztetxoen pintura ikastaroan oraindik eman daiteke izena. 5-15 urte bitartekoendako da, eguaztenetan, 18:00etatik 19:30era. Prezioa 48,40 euro da.

LEHIAKETA

**> Argazki lehiaketan azaroaren 30era arte aurkez daitezke lanak**

Aloña Mendiko mendi sailaren *Mendia eta natura* argazki lehiaketan azaroaren 30era arte aurkez daitezke lanak. Adinez nagusi den edonork parte har dezake sariketan. Bi gai banatu dituzte: mendia eta natura; eta denuntzia edo salaketa.

ENPLEGUA > PEOIAK

## Lau peoi hasi dira lanean apiril bukaera artean

Askok eman dute izena: 30 herritarrek, eskualdeko 35ek, baita Estatukoek ere

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Egunotan hartu ditu Udalak lau langile Enplegu Planaren barruan. Peoi lanak egingo dituzte laurek sei hilabetez; hau da, herriko mantentze eta txukuntze lanak. Eta jardun osoa izango dute.

Urrian egin zuen deialdia Udalak eta lagun askok eman zuen izena. Horietatik 30 ziren aretxabaletarrak, 35 Debagoiengoak eta inguruko herrietakoak, eta beste asko urrunagokoak, baita Estatukoak ere. Argiñe Larrea Enplegu teknikariak aretxabaletarrak bakarrik hartu ditu kontuan hautaketa egiteko orduan. Jaurlaritzara laguntza eskaera dauka bideratuta Udalak postuok finantzatzeko, baina oraindik ez dute jaso erantzunik.

**DATORREN URTEKO DEIALDIAK**

Aurretik beste sei lagunek jardun dute Udalarendako mantentze lanetan eta dagoeneko bukatu zaie kontratua haiei. Datorren urtean deialdi gehiago egingo dituztelakoan dago Enplegu teknikaria, baina atzeratuta etorriko direla uste du, Enplegu Saila Jaurlaritzara transferentzia egiteak atzerapena eragingo duelako.

ERRETIRATUAK > LEHIAKETA

## Kantu eta narrazioak aurkezteko epea amaitzear

Lehiaketan parte hartzeko azken eguna azaroaren 17a dute Basotxoko kideek

M.A. > ARETXABALETA

Erretiratuen elkarteak abian jarritako antzinako kantuen eta narrazioen lehiaketara aurkezteko epea azaroaren 17an bukatuko da. Interesa dutenek Basotxoko zuzendaritzako kideekin egon behar dute (11:00-12:00).

Iaz egin zuten lehenengoz kantu lehiaketa eta 45 grabatu zituzten orduan. Aurten, narrazioetara zabaldu dute, jende gehiago anima dadin. Iaz grabatutako kantuak diskoan jaso zituzten eta salgai daukate Basotxon.

**GRABATU EGINGO DITUZTE**

Gura beste lan aurkez daitezke, baina aurreko belaunaldikoengandik ikasitakoak izan behar dute guztiek. Estiloak eta gaiak ez dute garrantzirik, ezta hizkuntzak ere. Bai kantuak, bai narrazioak grabatu egingo dituzte antolatzaileek, eta idatziz ere aurkeztu beharko dituzte parte-hartzaileek. Musikan eta herri kulturan adituek baloratuko dituzte lanok, baina erabakia epaimahai popularrak izango du.



Lausitta kaleko etxe txikietan egiten dabiltzan saneamendu eta berritze lanak. M.A.

ARETXABALETA > LANAK

# Bukatzear daude Lausittako etxe txikien saneamendu lanak

Uztailean hasi zituzten eta dagoeneko eginda daude hodiei dagozkien berritzeko lan guztiak; inguruak txukuntzea geratzen da orain

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Aurrera doaz Galartza auzora bidean dauden etxe txikietako saneamendu lanak. Inguruak egokitzea bakarrik geratzen zaie: harlauzak jarri eta lorategiak txukundu. Estatu Fondotik bideratutako dirulaguntzari esker dabil egiten lanok Erga eraikuntza enpresa, eta 223.342 euroko kostua daukate.

**UR ZIKINAK KOLEKTORERA**

Lausitta kaleko etxe txikietako azpiegiturak aspaldi zeuden berritu beharrean. Ur zikinen hodiak behar bezala bideratu dituzte –11. atartetik 17.era–; izan ere, errekara zuzenean zihoazen lehen hodi horiek. Errepidearen beste aldean dagoen zaharren egoitzako kolektorearekin elkartu dituzte orain. Hodiak aldatzeko lanok aprobetxatuta inguru guztia txukunduko dute eta beste itxura bat hartuko du kaleak. Bizilagunak pozik daudela uste dute Udal arduradunak, "nahiz eta beti egon kexaren bat".

**UDALETXEKO ATEAREN ZAIN**

Bestalde, udaletxeko sarrera egokitzeko lanak egin dituzte, horiek ere Estatu Fondoko dirulaguntzari esker. Sarrerako harrizko maila dagoeneko kenduta dago, eta orain, bakarrik zabaltzen den kristalezko atea noiz jarriko zain daude. Egurrezko atearen barruko aldean jarriko dute hori.

> ELKARTASUNA

### Urrian 139 herritarrek eman dute odola, zazpik lehenengoz

Bukatu dituzte Arabako Odol Bankuko kideek udazkeneko odol ateratze saioak, eta urrian 139 aretxabaletarrek eman dute odola. Osasun etxera joandakoak gehiago izan dira, 151 lagun, baina batzuei ez ematea gomendatu zieten. Emandakoen artean zazpik lehenengoz eman dute eta odol emaileen elkarteko kideak oso pozik daude: "Oso emaitza onak dira, aurrekoak gainditu egin ditugu eta, gainera, jende berria animatu da". Guztiei eskerrak eman nahi dizkiete eta, bide batez, gogorarazi loteria daukatela salgai. Interesatuak Ramon Erañarekin egon daitezela.

> EUSKARA

### Argazki emanaldia dago gaur Loramendi elkarteak antolatuta

Larraitz Arando eta Gari Iturbe aretxabaletarrek argazki emanaldia egingo dute gaur, hilak 8, udaletxe zaharrean (19:00). 2008 eta 2009. urte artean munduan zehar egindako bidaiaren berri emango dute; paisaia ikusgarrien argazkiak eman bitartean kontu kontari jardungo dute.

Bestalde, zapatuan, hilak 13, erreflexoterapia ikastaroa egingo dute. Egun bakarreko saioa da: goizean (10:00-13:00) eta arratsaldean (15:00-18:00). Izena emateko lehenbailehen jo Loramendira; bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 15 euro.

ESKORIATZA > LEHIAKETA

## Ti Tau! film laburren I. rallya antolatu du Eingeikek

Dagoeneko izena eman daiteke, 'Eskohitza' blogaren bitartez

Zinema Soziala delaeta filmak emango dituzte martitzenetan

M.A. > ESKORIATZA

Ti Tau! film laburren I. rallya deitu du Eingeike elkarteak azaroaren 20rako, zapatua. Gaia banatuko dute goizean (09:30) eta arratsaldeko zazpiak arte izango dute tartea parte-hartzaileek grabazioa egin eta muntatzeko.

Izena emateko epea dagoeneko zabaldu dute. *Eskohitza* blogean jarri duten formularioa bete behar da–*www.eskohitza.com*–. Saririk ez izan arren giro bikaina izango dela iragarri dute antolatzaileek.

**MARTITZENETAN, ZINEMA SOZIALA**

Bestalde, Zinema Sozialaren II. erakustaldia egingo dute Eskoriatzan eta hiru film emango dituzte azaroan: bihar, martitzena, *13 pueblos en defensa del agua* (Mexiko, 2008); hilaren 16an, *El velo de Berta* (Txile, 2004); eta 23an, *Soy defensor de la selva* (Ekuador, 2004). Ibarraundi museoan dira emanaldi guztiak (19:00).

Herri indigenek euren herri izaerari, hizkuntzari eta kulturari eusteko dituzten proposamenen berri emango dute filmek.

**Saioa Rozas** > Turismo gidaria

# "Kafe antzokiko harreragunean abiaraziko ditugu bisitak; gero, lubakietara joango gara"

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

**Maiatzaren 23an inauguratu zuten *Gerra Zibila Euskal Herrian; ibilbide tematikoa Intxortaren magalean* izeneko egitasmoa. Hainbat bisita gidatu egin dira ordutik hona, baina aurrerantzean maiztasun finkoa izango dute irteera horiek. Gidari lanak egingo dituen Saioa Rozas arrasatearrarekin egon gara.**



Saioa Rozasek gidari lanak egingo ditu Intxortako ibilbide tematikoan. GOIENKARIA

**Zer ikusiko dute bisita horietan parte-hartzaileek?**

Espaloia Kafe Antzokian dagoen harreragunean emango diegu hasiera bisita horiei. Bertan dagoen ikus-entzunezkoa ikusiko dugu lehenengo, eta maketa komentatuko dugu. Frontearen nondik norakoen berri emango dugu maketa horri esker. Azalpen horiek entzun ostean Asentzio aldera egingo dugu, lubakiak egon ziren tokira, hain zuzen ere.

**Frontea zazpi hilabetez egon zen Elgetan. Garrantzitsua izan zen hori.**

Bai, eta gudu haiek non gertatu ziren ikusiko dugu bertatik bertara. Lubakiak eta gordelekuak non egon ziren, posizio ezberdinak zeintzuk izan ziren...

**Bisita, beraz, oso grafikoa izango da.**

Bai. Kalkulatu behar dugu ikus-entzunezkoa eta irteera kontuan hartuta bisitak hiru bat orduko iraupena izango duela.

**Zenbat bisita egitea duzue pentsatuta?**

Hasiera baten, hilean bi egingo ditugu, hileko lehenengo eta azken domeketan. Lehena euskaraz eta bestea gazteleraz. Lotuta dauzkagu azaroko eta abenduko irteerak. Hortik aurrerakoak oraindik lotzeke daude.

**Aurten beste hiru aukera egongo dira ibilbidea gidariarekin egiteko**

**Izena ematea ezinbestekoa da?**

Bai, gehienez 30 laguneko taldeak izango direlako. Mankomunitateko Turismo Sailak kudeatzen ditu irteerok eta izena eman beharra dago. Horretarako, idatzi edo deitu egin behar da. Kontaktuak hauek dira: *turismo@debagoiena.net*, 943 796 463 eta 943 718 911.

**Eta eguraldi txarra bada ere egingo dituzue mendi irteerak?**

Oso eguraldi txarra egiten ez badu, behintzat, hasiera baten bai. Dena dela, arropa egokiekin etortzea gomendatzen dugu; mendiko arropa eta mendiko botak. Sasoi honetan euria egiten du eta baliteke lubakien ingurua lokaztuta egotea.

**Domekan egin duzue lehen bisita. Hurrengoa azaroaren 28an eta gazteleraz, ezta?**

Bai, eta izena emateko bideak berak dira. Gogoratu behar da 30 lagunendako tokia dagoela.

**LEINTZ GATZAGA** > OSPAKIZUNA

# Gatzarekin zerikusia duten ekitaldi asko egingo dituzte domekan, gatz museoan

Gesaltza Añanako ordezkariak (Araba) etorriko dira, gatz larrainen berri eman eta salgai daukaten gatza eskaintzera

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Domekan, hilak 14, San Milixan feria dela aprobetxatuta hainbat ekitaldi egingo dituzte Eugenio Otsoa gatz museoan goiz partean (10:00-14:30). Sua piztuko dute, San Milixan egunean urtero egiten duten moduan, eta bisitariak pilatzen direnean sasoi baten gatza zelan egiten zuten Gatzagan azalduko dute.

Bien bitartean, umeek gatzarekin esperimentuak egiteko tartea izango dute eta helduek gatzartua ezagutzeko aukera: ardi eta behiaren gatzartua; bakailaoa eta sardina gaziak... Horren gaineko erakusketa eskainiko dute.

Horrez gain, irak egongo dira pilatuta museo inguruan eta idiak gurdiarekin joango dira irak San Migel plazara eroateko, meta egin dezaten bertan.

**GESALTZAKOAK MUSEOAN**

Domekan, gainera, aparteko bisitariak izango dituzte museoan: Gesaltza Añanako gatzagetako ordezkariak. Gatzagarrak dagoeneko izan dira Araban eta orain bisita itzuliko diete. Gatz larrainen gaineko argibideak eman eta gatza jarriko dute salgai.

**ARAMAIO** > KULTURA

# Iñigo Montoyak irabazi du Zuiako argazki lehiaketa

Lehiaketaren zortzigarren ekitaldian 137 argazki jaso dituzte; sari nagusiaz gain, Aramaioko irudi onenaren saria ere jaso du Iñigo Montoyak

**E.M.** > ARAMAIO

Zuiako Koadrilak antolatutako argazki lehiaketako irabazleak aditzera eman dituzte. Lehiaketaren zortzigarren ekitaldian 137 argazki jaso dituzte eta Iñigo Montoya gasteiztarrak eraman du lehen saria (300 euro eta trofeoa), *Hielo sobre el pantano* lanagatik. Txabi Iturratek jaso du bigarren saria (200 euro eta trofeoa) eta hirugarrena (150 euro eta trofeoa) Olivia Bengoarendako izan da.

Zuiako Koadrilako herri bakoitzeko irudi onena ere saritu dute eta Aramaiori dagokiona Iñigo Montoyak eraman du baita ere: 75 euro eta trofeoa jaso ditu Montoyak.

**BIDEO EMANALDIA ETZI**

Bestalde, Orixol mendi elkarteak antolatuta, Himalaiari buruzko bideo emanaldia izango da etzi, eguaztena, Sastiñan, 19:00etan. Zornotzako Asier Arantzabal eta Mila Gallastegiren eskutik, *Himalaia ezezaguna: Kaxmir eta Ladakh* ikusteko aukera izango da. Sarrera doan izango da. Orixol elkarteak gonbidapena egin die herritarrei emanaldira joan daitezen.



Aramaiori dagokion saria, Iñigo Montoyaren *Otoño* izenburuko lana.

**ANTZUOLA** > UDALA

# Laguntzak jasoko dituzte euskara ikasten dabiltzanek

Dirulaguntzak jasotzeko baldintza bat da Antzuolan erroldatuta egotea

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Euskara ikasten dabiltzan herritarrei dirulaguntzak emateko oinarriak onartu zituzten eguazteneko osoko bilkuran.

Helburua da euskara ikasten dabiltzan herritarrei dirulaguntzak emateko baldintzak arautzea.

**BETE BEHARREKO BALDINTZAK**

Laguntzak jasotzeko baldintza batzuk bete beharko dira eta horietako bat da Antzuolan erroldatuta egotea, gutxienez ikastaroa egiten den bitartean; eta gutxienez %85eko asistentzia ziurtatzea ikastaroan.

Laguntzak eskatzeko eskabideak aurkezteko epea izango da ikastaroa bukatu eta hurrengo bi hilabeteetan, betiere 2011ko urriaren 31 baino lehen.

**AURKEZTU BEHARREKOAK**

Eskabide ereduarekin batera ondoko agiriak aurkeztu beharko dira: matrikularen ordainagiria, euskaltegiaren agiria, eskatzailea langabezian badago INEMek emandako agiria, eta, eskatzailea erretiratua bada, hori dioen agiria.

**GAZTAINA-ERRE JANA**

Bestalde, erretiratuen elkarteak gaztaina-erre jana antolatu du azaroaren 20rako. Parte hartzeko izena eman behar da, azaroaren 10ean edo 11n, 16:00etatik 18:00etara, erretiratuen elkartean. Izena ematerakoan 2 euro ordaindu beharko dira.

**SURADESA**

Azkenik, Suradesak adierazi du gaur eta datorren astelehenean, hilak 15, beste ordutegi bat izango dutela bulegoan: 12:00etatik 13:00etara.




> KROS ARRAKASTATSUA
Antxintxika krosean David Gartzia eta Ainhoa Landinez onenak > 22-23



> SASKIBALOIA
Derbiaren atarian, MUk galdu eta Sustrai Aloña Mendik irabazi > 24



> ESKALADA
Ander Lasagabasterrek 8c+ zailtasuneko bidea kateatu du > 27



Amutxastegi lurrera erortzeko zorian, falta jaso ostean. J.CALLEJA



Haritz Igartua, zelai erdian borrokan. J.CALLEJA



Oinatz Hernaniko kontrarioarekin lehian, airetik datorren baloia lortzeko. JULIO CALLEJA

# Garaipenak ihes egin zion UDAri azken minutuetan

**AUKERA** Laugarren garaipena lortzeko aukera ederra galdu zuten etxekoek

UDA
**3-3**
HERNANI

**Aretxabaleta** > Iker, Raul, Andoni, Kerman, Arkaitz, Haritz, Guillen (Iñaki, 83 min.), Jokin (Jon, 85 m.), Oinatz (Mikel, 77 m.), Julen eta Perez (Alain, 75 m.).

**Hernani** > Orokieta, Aduriz, Mingo, Peru (Oleaga, 80 m.), Lujanbio, Adrian, Urio, Gurrutxaga, Omar (Iñurritegi, 72 m.), Olasagasti eta Bereziartua (Zabaleta, 67 m.).

**Epailea** > Sarasua, Batista eta Letamendi marrazainekin. UDAko Raulek, Haritzek, Perezek eta Barrutia entrenatzaileak ikusi zuten txartel horia. Hernaniko Mingo, Peru, Garcia eta Olabideri ere txartela atera zien eta Uriori gorria 63. minutuan.

**Bestelakoak** > Hotza eta euria. 350 ikusle inguru. Partiduaren atarian, minutu bateko isilunea Jabier Biteri jokalari ohiaren omenez.

**EDU MENDIBIL** > ARETXABALETA

Partiduaren amaieran, aldageletara bidean, jokalarien aurpegiari erreparatzea baino ez zegoen batzuengan poza eta besteengan etsipena antzemateko. Liderra bizirik atera zen Ibarran, azken minutuetan etxekoek bi goleko abantaila galdu ondoren. UDAkoek bazuten motiboa aldageletara haserre joateko. Gutxitan izango dute garaipena hain gertu. Berdinketa are mingarriagoa izateko, jokalari bat gutxiagorekin lortu zuen berdinketa Hernanik. UDAren zaleek ezin zuten sinistu ere egin. Hernani liderrak partidu bakarra galdu du orain arte eta bigarrena galtzeko zorian izan ziren atzo. Sari eskasa jaso zuten Ramon Barrutiaren jokalariek egindako lanaren truke.

Izan ere, partidu txukuna eta serioa jokatu zuten aretxabaletarrek atzo. Partidua hasi eta berehala aldapan gora jarri zitzaien neurketa; Kerman atzelaria eta Iker atezaina ez ziren elkarrekin ulertu eta defentsak bere atean egin zuen lehenbiziko gola, 5. minutuan. Baina etxekoak ez ziren gertu amore emateko. Zelai erdian joko ona eginez, erasoari ekin zioten eta atsedenaldia baino lehen berdindu zuten partidua. Julenek gol polita egin zuen 42. minutuan.

**ETXEKOAK NAGUSI JARRAIPENEAN**

Bigarren zatian, lehen minututik, etxekoak izan ziren nagusi. Aitor Perezek eta Julenek aukera onak izan zituzten bigarren gola lortzeko baina Orokieta Hernaniko atezaina fin ibili zen. 63. minutuan etorri zen partiduko jokaldi erabakigarrietako bat; Uriok eskuarekin urrundu zuen baloia sareetara zihoanean, eta Sarasua epaileak penaltia adierazi eta Hernaniko defentsa egotzi zuen, txartel gorria erakutsita. Aitor Perezek ez zuen barkatu penalti puntutik eta 2-1ekoa jarri zuen markagailuan.

Ordu erdiren faltan, markagailuan aurretik eta bat gutxiagoren aurka etxekoek dena alde zeukaten. Eta hori gutxi balitz, 73. minutuan etxekoen hirugarren gola etorri zen, jokaldi bikain baten ondorioz. Aitor Perezek zelai erdi ingurutik atera zuen falta bat, haren erdiraketa Guillenek jaso zuen, baloia ondo kontrolatu eta dotore bidali zuen sarera, jaurtiketa zehatz batekin.

Eta etxeko zaleak garaipena dastatzen ari zirenean, ezustekoa etorri zen. Lehenbizi, Olasagastik falta jaurtiketa bati esker egin zuen bisitarien bigarren gola. Hernaniko kapitainak ustekabean harrapatu zuen Iker atezaina. Gol horrek konfiantza eman zion liderrari eta UDAkoak urduri jarri ziren. Partidua bukatzeko 9 minuturen faltan, Mingok barneraldia egin zuen ezkerraldetik eta Iñurritegik jaso zuen erdiraketa, area txikiaren inguruan. Defentsa atzean zuela, buelta erdi eman eta hirunakoa egin zuen. Etxekoek bazuten motiboa bai aldageletara haserre joateko.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Bergara Aurrera Ondarroari nagusitu zitzaion, 1-0

Bergarak 1-0 irabazi zion zapatuan Aurrera Ondarroa taldeari Agorrosinen. Ander Nafarratek egin zuen partiduko gol bakarra, lehen zatian. Partidu ona egin zuen Bergarak. Sailkapeneko 14. tokian dago orain, 9 punturekin. Hiru partidu irabazi dituzte mahonerook. Hurrengo jardunaldian hirugarren tokian dagoen Anaitasunari egingo diote bisita.

> OHOREZKO ERREGIONALA

## Mondrak puntu bat lortu zuen etxetik kanpo

Mondrak puntu bat lortu zuen zapatuan Rotetari egindako bisitan. Bigarren zati osoan 10 jokalarirekin aritu zen Roteta eta 10 minuturen faltan berdindu zuen Mondrak Jokin Pavoren bitartez. Zumaiakoren aurka jokatuko du Mondrak zapatuan. Azken tokian dira zumaiarrak. Mondrak seigarren postuari eusten dio.

**ATLETISMOA** > ANTXINTXIKA KROSA

# David Gartziak hegan egin zuen azken kilometroan

## Elgoibarko Ainhoa Landinez izan zen emakumezkoetan azkarrena (37.34)

## Handbike modalitatean Jose manuel Centeno erraz gailendu zen (21.09)

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Ezustean, halaxe irabazi zuen David Gartziak zapatuan egin zuten Antxintxika krosa (33.11). Ezustea izan zen durangar gaztearendako, baita lasterketako faboritoen zerrenda egin zutenendako ere –inork ez zuen espero garaipenerako faborito Ibon Esparzak 6. kilometroan pot egitea. Baina, krosak korrika bikain eginda irabazten dira, ez ezustean, eta azken kilometroraino ondo eutsi eta gero, Ibargarai inguruan –azken kilometroan– egindako erritmo aldaketari esker nagusitu zen Gartzia.

Azken erasoa jo aurretik, baina, aurrealdean zihoan hirukoaren artean Gartziak zuen aurpegi onena, hura zihoan freskoen. Eta erritmoa aldatu zuenean haren itzalean ziren lasterkariek ezin izan zioten jarraitu. Ordurako, hiruko horri jarraitzeko indar barik ziren Cipri Burcio legazpiarra eta Asier Urdanpilleta oñatiarra, amore emanda; soberan izan zituzten azken bi kilometroak.



David Gartzia, helmugan JULIO CALLEJA

**IBARREAN, GUSTURA**

Emakumezkoetan, udazken honetan Ainhoa Landinez elgoibartarrak gustua hartu dio Debagoienari, Arrasate-Oñati lasterketan azkarrena izan ostean, zapatuan ere azkarrena izan zelako (37.34). Bakarrik egin zuen lasterketa, ondoan ez zuen beste emakumezkorik izan, hiru minututko aldea atera zion-eta bigarren sailkatu zen Nerea Etxeberriari (40.17). "Beste urte batzuetan baino gutxiago entrenatzen nabil, eta Oñatin eta Bergaran lortutako bi sari hauek izugarri motibatzen naute", adierazi zigun Landinezek sari banaketa aurretik. Emakumezkoetan hirugarrena –eta ibarreko azkarrena– Oñatiko Estela Biain izan zen (41.21).

**IBILBIDE BERRIAREKIN, POZIK**

Gurpildun aulkian lehiatu ziren atletek beste ukitu bat eman zioten probari. Eurak erosoago ibil zitezen egin zuten ibilbidean aldaketa, eta korrikalariek ere begi onez hartu zuten proposamen berria –nahiz eta antolatzaileendako buruhauste bat gehiago izan, errepidearen noranzko bat moztu egin behar izan zutelako.

Atleta horiek bi modalitatetan lehiatu ziren, handbike kian –lehenengoak azkarragoak dira– eta Jose Manuel Centenok alde galanta atera zien gainontzeko guztiei (21.07), 10 minutu baino gehiago. Osintxuko zubitik lehenengoa pasa zen –argazkian– eta orduko getxotarrak abantaila nabarmena zuen. Atletek umorez hartu zituzten harrizko 50 metro horiek, aulkiak dardarka, pabe tartea jarri zietela eta brometan.

Azkenik, koadrilaka Bergarako Los Matos hirukotea izan zen irabazlea (Arkaitz Ruiz de Loizaga, Iker Herran, Roberto Zurro) eta emakumezkotan Beti Mugan taldea (Rosa Agirre, Itziar Aldekoa, Maitane Txueka).

DATUA

**562**

**LASTERKARI**

Zapatuan Antxintxikako krosak beste errekor bat ondu zuen, parte-hartzearen errekorra. 562 lagunek eman zuten izena, eta 510 lagun iritsi ziren helmugara. Lasterketak hazten jarraitzen du.



Soraluzeko Zigor Esnaola (775) eta Oñatiko Joxu Arana (770) Osintxuko zubia zeharkatzen; aurre


Jose Manuel Centeno izan zen Handbike modalitatean azkarrena (21.09). JULIO CALLEJA

PROTAGONISTAK



**Ainhoa Landinez**
Elgoibar

"Oso pozik geratu naiz lehenengo postuarekin. Orain dela hiru urte izan nintzen lasterketa honetan, baina gaur ibilbidean egin dituzten aldaketak asko gustatu zaizkit. Datorren astean Behobian izango naiz; iaz 1.27ko denbora egin nuen eta niretako marka oso polita da".



**Yolanda Perez de Arenaza**
Arrasate

"Oso gustura ibili gara gaur, herri batean hasi eta beste batean amaitzen diren probak politak direlako. Aurten lasterketa askotan hartu dugu esku, izenemateak ordaintzen gastatu dugu gure paga, baina Behobian ikusle moduan gozatuko dut probaz".



**Gorka Bergaretxe**
Arrasate

"Parte hartzen dudan bigarren lasterketa da, helburua zen helmugara fresko iristea, eta hori behintzat lortu dugu. Gainera, lagunartean azken metroetan esprint txiki bat egin dugu, tontoarena egitearren, eta barre apur bat egin dugu, bai".



**Haritz Beistegi, Luis Mari Beistegi eta Iker Beistegi**
Bergara

"Oso ondo ibili gara, etxeko lasterketa da eta behin baino gehiagotan hartu dugu hemen parte. Hau ez da lasterketa oso gogorra, gogorragoa izango da datorren asteko Behobia-Donostia", adierazi zigun Beistegitarren artean nagusienak, aitak: "Datorren astean helburua izango da bi orduren bueltan helmugan egotea. Ondoren, lagunartean ondo bazkaltzeko astia izango da, Zarautzera joango gara hamasei lagun, eta egunpasa ederra daukagu". Domekako lasterketan Luis Marik ondoan izango ditu semeak, Haritz eta Iker.



ekoekin alderatuta bigarren taldean egin zuten lasterketa, aurrean, baina. XABIER URTZELAI



Gurpildun aulkian lehiatu ziren sei lagunak, sari banaketan. X.U.



Asier Urdanpilleta (1135) izan zen ibarreko lehena, laugarren postuan. JULIO CALLEJA



Aretxabaletako Maite Gartzia, Ainhoa Calleja eta Jose Mari Etxebarrieta, Osintxun. X.U.

## Lasterketaren sailkapena

**GIZONEZKOAK**

| | |
|---|---|
| David Garcia | 33:11 |
| Ruben Lantz | 33:18 |
| Cipri Burcio | 33:37 |
| Asier Urdanpileta | 33:41 |
| Ibon Espartza | 33:51 |
| J. Antonio Ruiz | 34:24 |
| Arkaitz R. de Loizaga | 34:24 |
| Unai Hernandez | 34:32 |
| Joseba Plaza | 34:42 |
| Markel Blanco | 34:47 |
| Iñaki Idoeta | 34:49 |
| Patxi Mendizabal | 35:02 |
| Martin Berrizbeitia | 35:03 |
| Juan Soto | 35:05 |
| Iñigo Goenaga | 35:09 |
| Iñigo Lariz | 35:10 |
| Xabier Elkoro | 35:10 |
| J. Antonio Akizu | 35:13 |
| Roberto Zurro | 35:18 |
| Iker Herran | 35:21 |

**EMAKUMEZKOAK**

| | |
|---|---|
| Ainhoa Lendinez | 37:34 |
| Nerea Etxeberria | 40:17 |
| Estela Biain | 41:21 |
| Maitane Txueka | 42:03 |
| Begoña Vaqueriza | 42:41 |
| Itziar Aldekoa | 43:27 |
| Leire Altube | 43:59 |
| Nerea Lendinez | 44:02 |
| Ainhoa Garcia | 45:28 |
| Ines Arreitunandia | 45:45 |
| Ane Barreiro | 45:49 |
| Aitziber Urkiola | 46:03 |
| Ane Ziaran | 46:12 |
| Marije Velasco | 46:38 |
| Monika Biain | 47:29 |
| Sorkunde Viguera | 47:32 |
| Leire Guenetxea | 48:01 |
| M. Rosa Agirre | 48:34 |
| Maialen Sorreluz | 48:40 |
| Lourdes San Martin | 48:45 |

**GURPILDUN AULKIA (HANDBIKE)**

| | |
|---|---|
| J. Manuel Centeno | 21:07 |
| Igor Elizburu | 33:29 |

**GURPILDUN AULKIA**

| | |
|---|---|
| J. Antonio Iglesias | 30:53 |
| Pierre Miura | 34:53 |
| Imanol Martinez | 44:22 |
| Mikel Goikoetxea | 44:22 |

**NESKEN KOADRILLAK**

| | |
|---|---|
| Beti mugan | 8044 |
| Eibartarrak | 8387 |
| Nahi adina | 8987 |
| Nafarrak | 9131 |

**MUTILEN KOADRILLAK**

| | |
|---|---|
| Los mateos | 6303 |
| Bizkai-txarrak | 6590 |
| Aloña taldea | 6737 |
| Korrikalari | 6948 |

*Sailkapen osoa www.antxintxika.org webgunean.

**David Gartzia** > Irabazlea

# "Sasoi onean nago, baina ez nuen uste irabazteko moduan nengoenik"

**X.U.** > BERGARA

**Euskadiko Kros denboraldian burubelarri ibiltzen da David Gartzia durangarra. Aurten prestakuntza aldatu eta beste proba batzuetan parte hartzen hasi da; durangarrari emaitza onak eman dizkio aldaketak.**



J.C.

**Zer moduz?**

Oso ondo, ez nuen uste horren ondo ibiliko nintzenik. Nik otsailean egon behar izaten dut ondo, eta aurten prestakuntza aurreratu dut beste lasterketa batzuetara begira. Hala, gorputzaldi onean nago, baina ez nuen uste gaurko lasterketa irabazteko moduan egongo nintzenik.

**Hasierako kilometroetan talde polita sortu duzue aurrealdean, baina talde hori txikitzen joan da poliki-poliki.**

Bai, ez dut uste hasieran indartsu atera garenik. Ondorengo kilometroetan erritmoa bizitu dugu apur bat, eta 20 laguneko taldea joatetik jendea atzean geratzen joan da. Hiru lagun iritsi gara Bergarara batera, eta azken kilometroan uste baino errazago jo dut erasoa, eta lehenengo iritsi naiz.

**Datorren asteko Behobia-Donostia lasterketarako, entrenamendu saio ona.**

Bai, gainera aurten lehenengoz hartuko dut esku lasterketa horretan, eta badut gogoa. Hor, baina, 20 kilometro dira, gaur egin dugun distantziaren bikoitza, eta gainera esan didate lasterketa gogorra dela.

**Bitxia da gaztetatik korrika ibili den lasterkaria izanda, Behobian inoiz parte hartu ez izana.**

Bai, neguan kros denboraldia egiten dudalako, eta euskadiko txapelketa otsailean izaten delako. Nik hor egon behar izaten dut indartsu, eta Behobia prestatu, eta ondoren otsailean berriro ondo egon ez dira oso bateragarriak. Herrian, baina, lagunek berotu egin naute, eta datorren domekako lasterketa entrenamendu saio moduan erabiliko dut.

**Izango duzu markaren bat buruan.**

Ea ordu bat eta zortzi minuturen bueltan ibil naitekeen.

ZER DIOTE ARANTZAZUKO FRANTZISKOTARREK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO XAKELARIEK?

**SASKIBALOIA** > LEHEN MAILA NAZIONALA

# Esperientzia falta azaldu zuen MUk garaipena eskuratzeko

12 puntuko alde galdu zuen etxeko taldea eta gasteiztarrek eraman zuten partidua

MONDRAGON UNIBERTSITATEA
**70-80**
SEKY.ES

**MU** > Andoni Arantzabal (12), Mikel Anasagast,i (6), Igor Moracho (10), Ander Atxa, Unai Barrena (4), Andoni Zabalo, Iker Barbero (12), Mikel Arejo (12), Martxel Balzategi, Gorka Quintana (10), Paul Isasa (2) eta Alex (2).

**Seky.es** > Ruiz de Bergara (5), Ogueta (11), Bagazgoitia, Valiente (22), Almanza (4), Vidondo (8), Rojo (16), Fdez. de Zañartu (11) eta Lopez (4).

**Laurdenetako emaitzak** > Lehenengo laurdena: 16-15. Bigarrena: 38-36. Hirugarrena: 58-54. Laugarrena: 70-80.

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Denboraldiko bigarren partidua etxean galdu zuen MUk zapatuan. Josu Larreategiren mutilek liga hasiera ona egin zuten: lehenbiziko hiru partiduetan bi garaipen erdietsi ondoren, azken hiru neurketak galdu dituzte, horietatik bi etxean, Askartzaren aurka eta zapatukoa hain zuzen.

Gauzak ondo jarri zitzaien etxekoei Seky.es-en aurka. MUkoak nagusi izan ziren lehenbiziko hiru laurdenetan: bigarren laurdenean bi puntuko aldea zeukan MUk, eta hirugarrenean lortu zuten alderik handiena, 12 puntukoa. Hirugarren zatia amaitzeko hiru minutu falta zirenean hasi ziren gauzak okertzen; joko antolatzailerik gabe geratu zen MU, eta bi eskoltarekin saiatu zen baloia igotzen. Gasteiztarrek partidua ia galdutzat ematen zutenean, garaipena eskuratzeko aukera ondo aprobetxatu zuten. Esperientzia handiko taldea da Gasteizkoa, orain arte partidu bakarra galdu duena. Larreategik ondo ezagutzen duen taldea da, jokalari asko gaztetxo zirenean zuzendu zituelako. Maisuari duten kalitatea azaldu zioten ikasle beteranoek zapatuan.



Iker Barbero saskira jaurtitzen, zapatuko partiduan. JULIO CALLEJA

**Josu Larreategi** > MUko entrenatzailea

## "Partiduak ixten eta erritmoak neurtzen asmatu behar dugu"

**E.M** > ARRASATE

**Josu Larreategi arabarrak hartu du aurten MU taldearen ardura. Baskoniaren lehen eta bigarren taldeetan urtetan jardundakoa da.**

**Aukera ezin hobea galdu duzue hirugarren garaipena lortzeko.**

Bai, partiduak ixten asmatu behar dugu. Joko azkarra egiten saiatu gara orain arte, baina jokalariak agian ez daude horretarako gertatuta. Basket kontrola egiten, erritmoak neurtzen asmatu behar dugu.

**Pozik halere taldearen mailarekin?**

talde gaztea dugu, eta jokalarien jarrera ona da. Gauzak ikasiaz poliki poliki egingo dugu gora.

**Hurrengo jardunaldian, derbia...**

Aloña gogor dabil eta beraiek dira faborito. Baina ez dugu baztertzen sorpresa ematea... Gaur bertan hasiko gara partidua gertatzen.



IRATI GOITIA

> SASKIBALOIA

### Aloña Mendik bolada onari eutsi, Legarzia mendean hartuta

Sustrai Aloña Mendi taldeak 88-67 irabazi zion zapatuan Promociones Legarzia taldeari, Zubikoa kiroldegian. Bolada onean jarraitzen dute oñatiarrek. Partidu bakarra galdu dute jokatutako sei jardunaldietan eta lehen maila nazionaleko bigarren tokian dira, Easo Pastas Arruabarrena taldearen atzetik. Aloñak MU hartuko du hurrengo jardunaldian.

> ARETO FUTBOLA

### Eskoriatzak 4-3 galdu zuen atzo Mallabiaren aurka

Euskadiko Txapelketaren barruan Eskoriatzak 4-3 galdu zuen domekan Mallabian. Sei jardunaldi jokatu dira honez gero eta partidu bakarra irabazi dute eskoriatzarrek. Bigarren mailan Aretxabaletak Urritzari 6-4, irabazi zion eta hirugarren mailan Aloñak IDK Elektronikaren aurka galdu zuen, 3-4. Gazte mailan Aloñak Internacionali gailendu zitzaion, 3-5.

> ESKUBALOIA

### Ford Mugarrik irabazi etxean eta Bergarak galdu Basaurin

Eguenean jokatutako partiduan, Ford Mugarrik 33-24 irabazi zion Urolari, Iturripen. Edu Orgazen taldea sailkapeneko goialdean dago. Sei partidu jokatu dituzte arrasatearrek, lau irabazita, bat berdinduta eta bakarra galduta. Soraluce BKEk, berriz, Indupime Basauriren aurka galdu zuen zapatuan, 28-23. Partidu bakarra irabazi dute bergararrek.



BERGARA KE

## Lagun Aro-Bilbao Basket derbia ikustera joateko irteera

Lagun Aro-Bilbao Basket derbia jokatuko dute egubakoitzean, azaroaren 12an. Bergara KEko saskibaloi eskolak partidua ikustera joateko irteera antolatu du eta 20 bat lagun joango dira Ilunbera. Bestalde, 3. mailatik 6. mailara bitarteko gaztetxoek oraindik aukera daukate saskibaloi eskolan izena emateko. Egubakoitzetan egiten dituzte entrenamenduak Mariaren Lagundiko kantxan (sarrera, Espoloitik), 17:00etatik 18:00etara. Argazkian, neska-mutilak Alex Gardoki entrenatzailearekin.

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO ARTZAINEK?

ZER DIOTE DEBAGOIENEKO IGERILARIEK?



Ezkerretik eskuinera, Petreñas, Ormaetxea, Ruiz de Azua, Jonathan Perez, Axpe eta Zufiria egubakoitzeko galan. JON ORMAETXEA

**ATLETISMOA** > SARI BANAKETA

# Federazioak emandako sari nabarmenak Arrasatekoendako

Arrasate Atletismo Taldeak eta bertako kideek zazpi sari eskuratu zituzten denera Gipuzkoako Federakuntzaren sarien banaketan

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

Zorioneko daude Arrasate Atletiko Taldekoak, jaun eta jabe izan ziren-eta egubakoitz gauean egin zen Gipuzkoako Atletismo Federakuntzaren galako sari banaketan. Denboraldiko lorpenengatik ez ezik, azken urteotan egindako lanagatik ere eskuratu zituzten sariok.

### URREZKO EZKURRAK

Ezkurra da Federakuntzaren ikurra, eta hain zuzen ere, urrezko ezkur bana jaso zituzten Jose Ramon Petreñasek eta Jon Ormaetxea arrasatearrek 25 urtetan epaile bezala egindako lanagatik.

Maialen Axpe eta Malen Ruiz de Azua pertikalariek, bestalde, brontzezko ezkur bana eraman zuten etxera denboraldian egindako errekorren errekonozimendu gisa. Axperi gainera, plaka bat ere eman zioten bere mailako, gazte mailako, pertikalari onena izateagatik.

### GAUEKO EZUSTEKOAK

Sari horiek aurrez jakinak baziren ere, egon zen sorpresarik: Fernando Zufiriari plaka bat eman zioten entrenatzaile moduan egindako lanagatik, eta Arrasateko Atletiko Taldea, denboraldiko talde onena aukeratu zuten galan bertan egindako bozketa bidez.

> XAKEA

## Emozioa da nagusi Arrasate Hiria txapelketako azken jardunaldiaren aurretik

Egubakoitzean jokatu zen bosgarren txanda eta partida interesgarriak ikusi ahal izan ziren. Besteak beste, Alejandro Francok lidergoa eskuratu zuen, David Astasioren aurka jokatutako partida dotore baten ostean. Gipuzkoa mailako ohiko lehia ikusteko parada ere izan zen; Iñigo Argandoña donostiarra eta Fran Migel aretxabaletarraren artekoa, hain justu. Partida parekatua izan zen bien artekoa.

Azaroaren 12an jokatuko da azken jardunaldia eta Alejandro Francok garaipena lortzeko aukera izango du, hirugarren aldiz.

> TXIRRINDULARITZA

## Jon Odriozolak erronka berria du, Bidelan-Kirolgi amateur mailako taldea zuzenduko du

Oñatiarrak profesional mailako Euskaltel-Euskadi taldea utzi eta bi urtera helduko dio berriro zuzendaritzari. Gainera, txirrindularitzak aldatu beharra duela uste du; azken bi urte hauetan etxetik ikusi du, eta ez zaio larregi gustatu ikusitakoa.

Bere nortasuna eta ideiak utzi gura ditu Odriozolak Bidelanen eta gogor ekin nahi dio lanari; izan ere, adierazi du bere asmoa dela profesional mailako talde bat osatzea Gipuzkoan. Hala ere, badaki egungo egoera ekonomikoa ez dela onena horretarako.




Jon Odriozola Bidelan-Kirolgiko autoaz. A.E.

## Futbola

### OHOREZKO ERREGIONAL MAILA

**Sailkapena**

| | Punt. | Jokat. |
|---|---|---|
| 1. **Hernani** | 22 | 9 |
| 2. **Pasajes** | 19 | 9 |
| 3. **Anaitasuna** | 19 | 9 |
| 4. **Real Union** | 17 | 9 |
| 5. **Oiartzun** | 16 | 9 |
| 6. **Mondra** | 14 | 9 |
| 7. Trintxerpe | 13 | 9 |
| 8. **Ondarroako Aurrera** | 13 | 9 |
| 9. Aretxabaleta | 13 | 9 |
| 10. Ordizia | 12 | 9 |
| 11. **Hondarribia** | 11 | 9 |
| 12. **Berio** | 10 | 9 |
| 13. **Idiazabal** | 10 | 9 |
| 14. **Bergara** | 9 | 9 |
| 15. **Tolosa** | 9 | 9 |
| 16. **Aloña Mendi** | 7 | 9 |
| 17. **Roteta** | 6 | 9 |
| 18. **Zumaiako** | 4 | 9 |

**Emaitzak**

| | |
|---|---|
| Berio-Hondarribia | 1-1 |
| Trintxerpe-**Aloña Mendi** | 1-1 |
| Roteta-**Mondra** | 1-1 |
| Zumaiako-Real Union | 0-1 |
| Oiartzun-Anaitasuna | 0-1 |
| **Bergara**-Aurrera Ondarroa | 1-0 |
| Tolosa-Ordizia | 0-0 |
| **Aretxabaleta**-Hernani | 3-3 |
| Idiazabal-Pasajes | 0-5 |

**Hurrengoak**

**Aloña Mendi**-Roteta
**Mondra**-Zumaiako
Anaitasuna-**Bergara**
Ordizia-**Aretxabaleta**

### BESTE KATEGORIAK

| | |
|---|---|
| **GAZTEEN LIGA NAZIONALA** | |
| Ariznabarra-Aretxabaleta | 1-2 |
| **ERREGIONAL PREFERENTEA** | |
| Intxurre-Aretxabaleta | 0-1 |
| Mondra B-Antzuola | 0-1 |
| **LEHEN ERREGIONALA** | |
| Bergara "B"-Gazteak | 5-1 |
| Urki-Aretxabaleta C | 5-2 |
| **GAZTEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Aloña mendi-Lagun Onak | 3-0 |
| Elgoibar-Mondra | 5-1 |
| **GAZTEEN LEHEN MAILA** | |
| urki-Bergara B | 8-0 |
| Aretxabaleta B | Atsedena |
| Arizmendi-Arizmendi B | 5-1 |
| **KADETEEN OHOREZKO MAILA** | |
| Lagun Onak-Bergara | 2-0 |
| Tolosa-Aretxabaleta | 3-2 |
| **KADETEEN LEHENENGO MAILA** | |
| Arizmendi UDA-Aloña mendi | 1-3 |
| Bergara B-Arrasate | 0-9 |
| Aloña Mendi-Aretxabaleta B | 5-0 |
| **EMAKUMEZKOEN LIGA** | |
| Mondra-Amaikak Bat | 4-0 |
| Arizmendi | Atsedena |
| **INFANTILAK OHOREZKO MAILA** | |
| Bergara-Lagun onak | 3-2 |
| Aloña Mendi-Eibar | 0-5 |
| Elgoibar-Aretx.Arizmendi | 1-3 |
| Arrasate-Ondarroako Aurrera | 1-0 |

## Eskubaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO SENIORRAK, GIZON.** | |
| Ford mugarri-Urola | 33-24 |
| Indupe Basauri-Soraluce BKE | 28-23 |
| **SENIOR PREFERENTEA, EMAKUMEAK** | |
| Aloña Mendi-Ereintza | 22-22 |
| **LEHEN TERRITORIALA** | |
| Ordizia-Arrasate | 24-29 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Izarraitz Aloña-Talleres ondo | 37-23 |
| **GAZTEEN GIPUZKOAKO TXAPELKETA** | |
| Bergara-Ordizia | 36-32 |
| Aloña Mendi-Leizaran | 29-23 |
| **GIPUZKOAKO GAZTEAK EMAKUMEAK** | |
| Arrate-Aloña Mendi | 14-22 |
| Pulpo-Bergara Soraluce | 32-24 |
| **KADETEEN GIPUZKOAKO TXAP.** | |
| Arrate-Chapime Arrasate | 27-18 |
| Soraluze Bergara-Hondarribia | 24-35 |
| **KADETEEN TXAPELKETA, EMAK.** | |
| Aiala-Aloña Mendi A | 17-12 |
| Aloña Mendi-IMH Elgoibar | 13-28 |

## Saskibaloia

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Sustrai Aloña Mendi-Legarzia | 88-67 |
| MU-Seky.es | 70-80 |
| **SENIOR GIZONEZKOAK** | |
| MU-Autorecambios Goierri | 55-46 |
| **SENIORRAK, EMAKUMEZKOAK** | |
| Alde zaharra-Eskoriatza | 53-48 |
| **GAZTEAK MUTILAK, PARTAIDETZA** | |
| MU B-Kraft Atletico | 51-39 |
| Aloña Mendi-MCM | 85-66 |
| **GAZTEAK EMAKUM, PARTAIDETZA** | |
| Añorga-Aloña Mendi | 64-31 |
| **KADETE GIZONEZ. ERRENDIMENDUA** | |
| Easo Haitza-MU | 54-55 |

## Areto futbola

### MAILAZ MAILA

| | |
|---|---|
| **EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Mallabia-Eskoriatza | 4-3 |
| **BIGARREN MAILA** | |
| Aretxabaleta-Urritza | 6-4 |
| **HIRUGARREN MAILA** | |
| Aloña Mendi-IDK Electronica | 3-4 |
| **GAZTEAK** | |
| Internacional-Aloña Mendi | 3-5 |



Harmailatik
Debagoieneko kirola GOITBn
Astelehenero 20:45ean eta 22:30ean
Goitb Goiena Telebista
¡kustekoa!

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA

**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK

**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK

**ANE LASAGABASTER**
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23

**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95

**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57

**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74

**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA

**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6 behea / 620 12 48 46 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK

**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA

**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**

**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## HOMEOPATIA

**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA

**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK

**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK

**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA

**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA

**BENGOA NEREA**
Arrasate / Erdiko kale 22, 3 ezk / 659 58 66 89

**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK

**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA

**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK

**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86

**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## YOGA

**AREDHANA YOGA ETA GESTALT**

**PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.

**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 23 57 53

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Ander Lasagabaster > Eskalatzailea

# "Horman neure buruaren kontra lehiatzen naiz, horrek motibatzen nau gehien"



Ander Lasagabaster arrasatearra, Araotzen eskalatzen. A.LASAGABASTER

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Ander Lasagabaster (Arrasate, 1980), lagunendako *Mono*. Ezizen horrek gauza asko argitzen ditu, batez ere horman gora egiteko daukan abilezia. Eta baita egin duen azken balentriak ere, Euskal Herriko bide gogorrenetako bat eskalatu berri duelako –urriaren 28an, Araotzen dagoen *Honky Mix* bidea (8c+ zailtasuna).**

**Hilabete pasatxo behar izan duzu *Honky Mix* kateatzeko. Noiztik, baina, erronka hori buruan?**

Orain dela hiru urte serio hasi nintzen eskalatzen. Joxean Mulasekin hasi nintzen lanean, hark planifikatutako entrenamenduak egiten, eta berehala hasi nintzen aurrerapenak igartzen. Orduan ez nuen 8c+ zailtasuneko biderik buruan, baina poliki-poliki 8c zailtasuneko bideak kateatzen hasi nintzen; bost egin nituen guztira.

**Gogoan izango dituzu bost bide horiek.**

Bai, *White Zombie*, *Panoramix*, *Tsunami*, *Honky Tonki* eta *Magic Eye*. Ondoren, Baltzolan *Nuska* bidea kateatu nuen (8c/c+) zailtasun apur bat handiagoa duen bidea da hori, baina *Honky Tonky* eta *Magic Eye* bideak kateatu nituenean hasi nintzen pentsatzen *Honky Mix* egiteko gauza nintzela, izan ere, *Honky Mix* aurreko bi bideen batuketa da. Bi bide horien artean tarte tekniko bat dago, eta hori gainditu ostean hasten da hurrengo bidea.

**Zer suposatzen du 8C+ zailtasuneko bide bat egiteak? Euskal Herriko elitera salto egitea da?**

Ez, ez... elite mailako eskalatzaileak oraindik koska bat gorago daude. Gaur egun elite mailako eskalatzaileak 9a zailtasuneko bideak kateatzen dabiltza, eta Euskal herrian lauzpabost egongo dira maila horretan.

**Eta maila horretara salto egiteko aldea handia da?**

Bai, badago aldea. Maila horretan egoteko lana eta eskalada ez dira bateragarriak, gehienak profesionalak direla esango nuke. Nire kasuan lantegian dudan lana nahiko fisikoa da; goizean lan egin ostean arratsaldean Araotzen igarri egiten da ez zaudela deskantsatuta, eta horrela beti da zailagoa aurrera egitea.

**Entrenamenduak ere zorrotzagoak izango dira.**

Nik ez dut entrenatzeko arazorik izaten, agindutakoa egiten dut. Hori bai, maila horretan elikadura ere asko zaindu behar da, eta ni ez nago horren zorrotz ibiltzeko prest.

**Ze ezaugarri ditu *Honky Mix* bideak?**

Teknikoki ez dut uste aparteko pasarte zailik duenik, baina bide nekagarria da, erresistentzia handia behar da. Horman gora eta gora zoazen neurrian igartzen da geroago eta indar gutxiago duzula, eta horregatik diot erresistentziako bide bat dela.

**Burugogorra izan beharko da, hilabete bide berean ibiltzeko.**

Hilabete baino gehiago behar izan dut, eta bai, burugogorra izatea ere garrantzitsua da. Uda aurretik hasi nintzen bidea probatzen, eta ondoren oporretan joan ginen, eskalatzen ibili ginen, baina apur bat deskonektatzea zen helburua. Ondoren hilabete inguru ibili nintzen seriotasunez ahalegintzen, urriaren 28an igo nuen arte.

Gainera, ahalegin horretan zerbait kuriosoa gertatu zitzaidan. Ahaleginetako batean, ia goian nengoela hankako *reunio* batek kale egin eta erori egin nintzen, hegan egitea tokatu zitzaidan. Psikologikoki muga bat izan zen hori, beste zortzi ahalegin behar izan nituelako helburua lortzeko.

**Gazte-gaztetatik eskalatzen ibiltzeko, zer du kirol horrek?**

Ez dakit, ba... gainontzeko kiroletan inoren kontra lehian ibili beharrean horman neure buruaren kontra lehiatzen naiz, horrek motibatzen nau. Eta bai, zerbait izango du, aste barruan, asteburuan... oporretan ere ahalegintzen gara turismoa egin eta eskalada tartekatzeko. Hor neskalagunak badu pazientzia, bai.

**"Euskal Herrian elite mailako eskalatzaileak 9a zailtasuneko bideak egiten dabiltza"**

**"*Honky Mix*-ek teknikoki ez du apartekorik; baina erresistentziako bidea da, nekagarria"**

## Debagoieneko Eskalatzaileak taldea, bikain

Ander Lasagabaster Debagoieneko Eskalatzaileak taldeko kide da: "Joxean Mulas azpimarratzeko moduko lana egiten dabil gazteekin, eta txapelketetan emaitza ederrak lortzen dabiltza". Ondoko erretratua urriaren 24an Rokopolisen egindako Euskal Herriko txapelketakoa da. Bertan Euskal Herriko txapeldun titulua eskuratu zuten Arrasateko Miriam Mulasek, Jone Martinezek –argazkian– eta Kepa Bruñak. Eurekin batera, Debagoieneko taldeko ordezkari asko izan ziren txapelketan, podium postuak lortuaz.



Emakumezkoen podiumeko argazkia. DEBAGOIENEKO ESKALATZAILEAK TALDEA

**TEKNOLOGIA BERRIAK** > SARE SOZIALAK

# Sarean kalean moduan jokatzeko aholkatu du Eneko Barberenak

Sare sozialen erabileraren gainean egin zuen berba Txatxilipurdiko zuzendariak Gurasolandiako lehenengo hitzaldian




Eneko Barberena sare sozialen gaineko hitzaldia egiten, Kulturaten. L.Z.

**LARRAITZ ZEBERIO** > ARRASATE
"Aisialdi birtuala fenomeno oso berria da", esan zuen Barberenak azaroaren 2an hamar bat gurasoren aurrean egindako hitzaldian. "Arriskua ikusten dute guraso askok, baina tresna hutsak dira. Erabilerak dira onak edo txarrak". Gurasoei gomendatu zien apur bat saltsan aritzeko. "Ezagutu, ikasi eta irakatsi", esan zuen; eta, gainera, seme-alabei bide horretan laguntza eskatzeko.

Erabilera egokia egiteko aholkuak ere eman zituen; "kalean moduan jokatu behar dugu sarean", esan zuen. "Interneten zerbait zintzilikatzea Herriko Plazan ipintzea bezala da".

**IKERKETAREN EMAITZAK**
460 gaztetxo oinarri hartuta ikerketa bat egin du Txatxilipurdik. "10-12 urte arteko gazteek *messenger*-a dute gustuko, momentuko elkarrizketak alegia, eta Tuenti da sare arrakastatsuena. Komunikatzeko erabiltzen dute gehienbat, lagunekin mezuak trukatzeko eta argazkiak igo, ikusi zein komentatzeko. Esan zuen sarean egiten duten euskararen erabilera kalean egiten dutenaren antzerakoa dela, eta gehienbat aste bukaeretan konektatzen direla. Txatxilipurdin ez dira ez debekuen ez obligazioen aldekoak. Noiz eta zenbat denboraz sarean ibili seme-alabekin negoziatu beharreko kontua dela diote.

**HEZIKETA** > JOLASAK

## Jolas kooperatiboek integrazioa lantzen dute

**L.Z.** > ARRASATE
Gaur egun gehien egiten diren jolasek lehiakortasuna sustatzen dute, baina badago beste aukera bat: jolas kooperatiboak. Oñatiko Elkar-Hezi ikastetxean jolas horiek sustatzeko tailerra egiten ari dira Bakeola elkartearen laguntzarekin; 2-12 urte bitarteko 40 ikaslek eman dute izena.



Jolas kooperatiboen tailerra, eguenean, Oñatiko Elkar Hezin. A. MONEDERO

**GURASOEN ARTEAN ZABALDU**
Anaje Ferreiro irakasleak adierazi du jolas kooperatiboek integrazio lan handia egiten dutela. "Askotan, ohiko jolasetan, lehiakortasunaren erruz, zenbait ume baztertu egin ohi dira; jolas kooperatiboetan, berriz, guztien artean garatu behar dituzte estrategiak jolasa bukatzeko".

Elkar-Hezi ikastetxeak urteak daramatza jolas kooperatiboak umeen artean sustatzen, baina orain erabaki dute jolas metodologia hori gurasoei ere zabaltzea. "Jolas kooperatiboetan garrantzitsuena ondo pasatzea da, eta ez lehenengo tokian emaitza. Ez dago ez irabazlerik ez galtzailerik, eta jolaskide denen partehartzea bermatzen dute", adierazi dute Bakeola elkartetik.

Jolasean ari direnek taldea osatzen dute eta denen artean egin beharreko eginkizun bat dute. Asteon, eguenean, egin dute joko kooperatiboen gaineko lehenengo saioa Elkar-Hezi ikastetxean. Hurrengoa hilaren 18an egingo dute. Helburua da gurasoei joko horiek erakustea gero etxean erabiltzeko.

**HITZALDIA** > JARRERAK

## Kirol ekintza baten izan beharreko portaera hizpide

**L.Z.** > ARRASATE
Oñatiko Aloña Mendiko futbol sailak hitzaldia egin zuen barikuan. Gaia: *Kirol ekintza batean izan beharreko portaera.* Futbol zelaietan epaile lanak egiten ibili den Josu Cambeses oñatiarrak azaldu du mutikoendako garrantzitsua dela arautegia ondo ezagutzea eta epaileak zelan tratatu edo protestak zelan egin jakitea: "Jakin behar dute zer ez den inondik inora onartzen".

**GURASOEI ERE GOMENDIOAK**
Hitzaldi horretan gurasoei ere zenbait gomendio egitea zen Aloña Mendiko futbol saileko arduradunen asmoa. "Futbol zelaian zelan egon, nola berba egin, protestak nola egin... Guztia neska-mutikoen hobe beharrerako; izan ere, kaltegarria da umeek zenbait jarrera ikustea. Errespetua zer den eta zein garrantzi duen helduek erakutsi behar diegu", adierazi du Cambesesek.

**ZERBITZUAK** > LUDOTEKAK

## Aisialdia eta heziketa balioetan oinarrituta

**L.Z.** > ARRASATE
Arrasaten ludotekek 20 urteko ibilbidea dute. Egun, hiru daude eta Txatxilipurdi elkarteak kudeatzen ditu. Guztira, 3-12 urte bitarteko ia 500 umeri ematen diete zerbitzua eta gehiago ere onartuko lituzkete. Eskaera berriak ere badaude: ludoteka zerbitza eskatu dute, esaterako, Musakolako eta San Andres auzoetako gurasoek ere.

**ONGIZATE EMOZIONALA**
Jolasteko lekua baino askoz ere gehiago dira ludotekak; umeen ongizate emozionala eta balioetan oinarritutako heziketa lantzen dituzte. Errespetua, aniztasuna, autonomia, ingurumena, kultura-artekotasuna, gurasoekin harremanak, berdintasuna, etorkinen integrazioa... eta guztia euskaraz. Gainera, hezitzaileak dituzte premia bereziko umeendako.



Hezitzaileak ludoteka baten. TXATXILIPURDI

> SEXUALITATEA

### 'Kili kontuak': haurrekin sexualitatea lantzeko ipuin bilduma aurkeztuko dute Arrasaten

Martitzenean, haurrekin sexualitatea lantzeko ipuin bilduma aurkeztuko du Arrasateko Udaleko Sexologia Zerbitzuak. Proiektua hezkuntzako arlo ezberdinetan lanean ari den profesional talde baten fruitu da. Ez da agerraldi hutsa izango. Bildumaren aurkezpen ekitaldia 18:00etan egingo dute kulturateko areto nagusian, eta 18:30ean ipuin horien kontaketa egingo dute umeendako Okendo ludotekan.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko,
**zatoz gure webgunera**
guraso.com



**> SERORAK SAREAN**
Serorei buruzko liburu digitala jarri du Bergarako Udalak interneten **> 33**



**> GREG DULLI**
Abeslari estatubatuarrak emanaldia egin zuen zapatuan Amaian **> 39**



**> JAKOBA ERREKONDO**
Nekazaritzako ingeniari tekniko eta paisajistari elkarrizketa **> 40**



**DANBAKA** Rock Privado taldeak bigarren aldiz zapaldu zuen egubakoitzean Espaloiako agertokia eta kontzertu indartsua eskaini zuen. JULIO CALLEJA

# Rumbarik zabarrena metal berunezkoenaren aurka

Oñatiko 'rumberoena' gogoratzekoa izan zen, lagunarteko festa gehiago kontzertua baino

Gainontzeko taldeak fin eta txukun baina inor ezin da Ymotek piztiarekin indarrean neurtu

**JON BEREZIBAR** > ARRASATE

Pisuarengatik neurgarria eta guzti izan zitekeen barikuko saioa: *rumba*ren arintasun festazalea metalik astun eta boteretsuenaren aurka. Epel ez gintuzten utzi behintzat bi taldek: El trio calaverak, Oñatiko rumbarik *katxondo*eta zabarrarenarekin eta Ymotek-ek, betiko metalaren Titanak bezala. Nabarmengarri, halere, Front Malabarrekoen apustu indartsua. Eta, Rock Privadokoak espero moduan, etxerako lanak bikain eginda eta oholtzan disfrutatzen.

**FESTARAKO 'RUMBA' LAUKOTEA**

Ahots lakarrarekin, gitarrekin ezin asmatuta eta kaxoi-flamenkoa bere aldetik erritmoarekin, deskalabrutik gertu egon ziren El trio Calaverakoak. Rubio joandako lagunari dedikaturiko kontzertua izan zen eta emaitza ere horixe: lagunartekoa. Hori bai *Poteando por Oñati* "hit"-ak ez du huts egiten eta giroa berotzea behintzat lortu zuten. Zerbezak, turutak, kanpaitxoak eta berriketa asko. Andaluziar ukituaz ere ez ziren ahaztu, azentu horrekin eta gazteleraz hitz egin zuten-eta kontzertuan. Lehiaketa euren modura moldatu dute, ez dago txarto, baina ikusi behar ea lehiaketa bera euren moduetara makurtuko ote den.

**DOTOREZIA IA PROFESIONALA**

Bigarrenak herri beretik baina alde ederrarekin. Turutak cowboy botengatik aldatu eta ondo pentsatu eta neurtutako emanaldiarekin etorri ziren Rock Privadokoak. Aitzakia gutxiko zuzenekoa da hauena, entsegu orduak bizkarrean eta egin nahi dena ondo jakinda. Neurria ere ondo hartua diote Danbakako formatuari – bigarren aldia da – eta nabari da. Etxerako lanak ondo eginda eta eurak disfrutatzeko prest. Abestiak eta eguneroko istorioak. Zer berri? Abestiak abestiago. Bi disko kalean izatea ez da-eta alferrikakoa (*promoa* egitea ere ez zitzaien ahaztu, badaezpada ere). Estilora zurrunegi lotzea da agian "bainetako" bat, originaltasuna puntuagarria da-eta.

**'POWER' EMARI JUXTUEGIA**

Gitarra biziak bai baina ez basatiegiak. Bateria, hori bai, zanpatzailea eta baxu betegarri jostaria. Horiek dira estiloaren elementuak baina piztia noiz agertuko zain utzi gintuzten Front Malabarrekoek. Izan ere, izerdi tanta batzuk gehiago ere ez lirateke sobera egongo.

**PIZTIA PIZTUTA, IKUSLEAK NAGI**

Abadiñokoek bai, piztia berehala atera zuten, alajaina. Intro eta zeremonia guztiak egin eta hasi ziren ohiko zereginean: egurra baino beruna partituaz. Hauen jokoa ere aski ezaguna da Danbakan: muturreko musika, gitarra murruak eta indar menperagaitza. Teknikoki ezin finago eta energia uholde geldiezinarekin. Agian baterian ibili da piztia herrenka. Bestela, erritmoaren kontrol ia mekanikoarekin eurena izan da gaurko izerdi putzurik handiena. Pena azkenak jotzea eta ikusleak nekatu-antzean egon izana.



## EL TRÍO CALAVERA | Oñati

**Adituak esana** > Iñigo Gorritxategi
"Neu apurtuta utzi naute, jota geratu naiz. Gehiago iruditu zait festa kontua kontzertu-kontzertua baino. Eurek ere halaxe azaldu dute. Xelebrea irudi zait baina ez da nire estiloa eta baloratzeko irizpideak falta zaizkit. Ez zait batere gustatu eta jo ere ez zait iruditzen oso ondo jo dutenik. Halere, ez zait iruditzen ikuspegi horretatik baloratu behar zaienik. Gustatu, baina, ez zait gustatu".

**Ikusleak esana** > Hector Blazquez
"Hasteko ondo egon da, ez? Umorearekin, eta ez da txarra hori. Hauen kasuan gutxienekoa zen ondo jotzea ze hauen eskaintza beste modu batekoa da".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Alde daukatena da, gustatu ala ez, giro onarekin eta umorearekin jokatzen dutela. Jo, ez dute ondo jo baina abestiak dauzkate eta festarako gogoak pisu handiagoa du gitarrarekin abileziak baino. Gaurkoa haiek barik ez zen berdina izango".

**Taldekideak esana** > Beñat
"Gustura baina guk amaiera gitarra bat apurtu gura genuen eta ez dugu aukerarik izan. Finalera heltzen bagara gehiago eta hobeto ibiliko gara. Ez dugu larregi gertatu kontzertua baina finalera heltzeko esperantzarekin gaude. Orain kalean joko dugu gogoekin geratu diren guztiendako".



## ROCK PRIVADO | Oñati-Donostia

**Adituak esana** > Iñigo Gorritxategi
"Perfektu, euren estiloan ezin hobe: musikari bakoitza bere lekuan, emanaldi neurtua... Atentzioa eman didate zenbait gitarra solok, sinpleak izanik ere oso espresiboak zirelako. Springsteen imitatzen ere ibili da abeslaria eta ondo".

**Ikusleak esana** > Hector Blazquez
"Niri hauen musika estiloa ez zait hain erakargarria egiten, ez zait asko gustatzen, baina ez da hain txarto egon. Atentzioa batere deitzen ez didan musika estiloa izateko ez zait hain aspergarria egin eta pentsatzen dut hori izan daitekeela egiten dutena ondo egiten dutelako. Ondo landuta etorri dira, ikusi da hori".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Taldeak, zer diren, nola jotzen duten eta zer gura duten garbi erakutsi du oholtza gainean. Entsegu asko eta ondo pentsatutako emanaldia dela ikusi da. Ia profesional egon direla esan liteke. Fin eta txukun, zalantza barik".

**Taldekideak esana** > Juan Ignacio Manso
"Nahiko ondo baina hemen pena da berotan zaudenean orduan amaitzen dela guztia. Baina hori bagenekien aurretik. Soinua primerakoa izan da eta geu ere primeran ibili garela esan genezake. Ikusleak hasieran apur bat hotz ibili dira baina gero ondo. Ikusi da gure indarra zuzenekoan dagoela".



## FRONT-MALABAR | Arrasate-Bilbo

**Adituak esana** > Iñigo Gorritxategi
"Kantuak, orokorrean, gustatu egin bazaizkit ere, iruditu zait gitarran – gainera bakarra egonda – lan asko falta dela. Bateria ondo ikusi badut ere power-rockean gitarra askoz ere gogorragoak behar dira, pisua falta zaie hor, beharbada, emaitza guztiz asegarria izan dadin. Power-trio moduan jotzeko beharrezkoa da indarra".

**Ikusleak esana** > Hector Blazquez
"Gaueko sorpresa izan da ze gustatu egin zait eta ez nituen ezagutzen. Ez da batere txarto egon. Rocka niri asko gustatzen zait eta hortaz niretzat oso kontzertu ona izan da estilo aldetik eta baita ere jo duten moduarengatik".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Neurriko kontzertua baina basakeria apur batekin emaitza borobila lortuko lukete. Bateria oso txukun, baina gitarrak, ondo jota ere, energia gehiago beharko luke. Saiatu dira abesti oso lauak ez egiten eta hor puntu bat irabazi dute. Energia, baina, faltan dute. Zuzeneko orduak falta zaizkie agian".

**Taldekideak esana** > Aitor Angulo
"Urduri hasi gara baina azkenean berotu eta primeran egon da. Ni behintzat pozik eta uste dut gainontzeko biek ere gauza bera esango dutela. Gutxi gora behera gauzak espero genuen bezala atera dira. Oso pozik gaude. ".



## YMOTEK | Abadiño

**Adituak esana** > Iñigo Gorritxategi
"Denetan gogorrenak, onenak eta nire gustuetara gehien egokitzen direnak. Gaur jo dutenetatik disko bat erosi beharko banu, hauena erosiko nuke. Asko gustatu zaizkit, eurena izanda emaitzarik borobilena alderdi guztiak kontuan hartuta. Kontzertu onena hauena izan dela iruditu zait.".

**Ikusleak esana** > Hector Blazquez
"Askogatik gehien gustatu zaizkidanak, indarra bete betean. Gaurko emanaldia ezin zen hobeto bukatu. Egurra banatu dute nahi adina eta zarata nahikoa atera dute. Espero izatekoa zen moduan, zalantza barik".

**Kazetariak esana** > Jon Berezibar
"Ezagunak ditugu aurretik eta jakin bagenekien gortu eta ikaratuko gintuztela –zentzurik onenean. Bortitz baina agian bateria geratu da, gainontzeko taldekideen indarrarekin ez zetorren bat eta oso harritzeko da hori Ymotek moduko talde baten. Bestela, teknikoki eta indar aldetik ezin hobe".

**Taldekideak esana > Asier Otadui**
"Guk ahal duguna egin dugu eta listo! Soinua ondo egon da eta gu gustura. Agian jendea geldiegi egon da. Azkenak jotzeak ere badu hori. Egindakoa eginda, guri bakarrik geratzen zaiguna da epaimahaiaren oniritzia jasotzea".


Adriana Besne (Rock Privado).


Ymotek taldekoek amaiera borobila eman zioten gauari.


'Ietxu'k (Trio Calavera) hegoaldeko azentua jarri zuen Elgetan .


Uribe-Etxeberria (Rock Privado)


Front malabar: Borja Sabas abeslaria eta Josema Cabezas bateria.


Rock Privadokoek euren esperientzia erakutsi zuten agertokian.


Beñat (Trio Calavera).


Aitor Angulo (Front Malabar).


Trio Calavera taldearen jarraitzaileek ederki pasa zuten oñatiarren emanaldiarekin.


'Zana' (Ymotek).

## ixilpekoak


Maider Arregi

# Umorea, indarra eta esperientzia

Txalo eta rumba doinuekin eman zioten hasiera gauari El Trio Calavera talde *canallak*. Zale *txantxikuek* dena eman zuten *Poteando por Oñati txati txati* abesti original eta umoretsuarekin. Barre algarak ere eragin zituen ***Rubio***-ren omenez sortutako taldeak!

**Rock Privadok,** talde heldua dela garbi utzi zuen. Dagoeneko bi disko ditu kalean eta hirugarrenaren bila etorri direla kontatu digute. Zuzeneko indartsu eta landuak, Espaloian beteranoak direla erakutsi ziguten. Hala, bi bider pentsatu gabe eszenatokitik salto egin eta ikusleengana gerturatu ziren.

Ikusle fidelen artean Danbaka lehiaketako aurreko irabazle bi ikusi genituen: **Aby Kem** taldeko abeslaria eta **The Wet Band** taldeko baxua. Front Malabar taldeak sorpresa polita eman zigun. 70eko hamarkadako power rocka bikain egiten dute-eta. Une batez, **CBGB** aretora bidaiatu genuen. Eskerrik asko! **Ymotek** abadiñoarrek amaiera borobila eman zioten gauari. Hitzik ez euren indarra eta grina azaltzeko.

## Azaroak 19an

> Doctors klub
> Rombos Negros
> Karpovian Projekt
> Ez!

HAN IRITZIA EMAN DIGUTE

**Julen Arabaolaza**
Oñati

"Taldekideetako bat laguna dudala-eta, Ymotek ikustera etorri naiz baina aurretik jo dutenak ere gustatu zaizkit: Trio Calavera orijinala iruditu zait eta Front Malabarren rocka ere gustatu zait. Azken hauek ez nituen ezagutzen, baina ondo egon dira ".

**Imanol Bilbao**
Zornotza

"Danbaka aurretik ezagutzen nuen eta berez ideia ona iruditzen zitzaidan arren, gaurkoa da etortzen naizen lehen aldia. Ikusi dudana gustatu zait, baina bereziki Ymotek taldea entzutera etorri naiz, inguruko taldeei babesa eman behar zaie-eta!".

**Oier Landaburu**
Elgeta

"Gaua ondo doa, baina egia esan behar badut, eta musika aldetik ia denetik entzuten badut ere, orain arte entzun dudana ez zait gehiegi gustatu, ez estilo aldetik eta ezta jotzeko moduari dagokionean ere... Aurreko edizioan maila hobea egon zela uste dut ".

**Eneida Cerqueira**
Oñati

"Bai aurreko kontzertuan eta baita gaurkoan ere, Oñatiko taldeak babestera etorri naiz ni eta uste dut nahiko maila ona erakutsi dutela. Gaurko kontzertuei dagokienez, gustatu zaizkit, izan ere, askotariko estiloak entzuten aukera egon da".

**Alain Valle**
Elgeta

"Aurretik jo duten taldeak ere ikusi ditudan arren, gehien gustatu zaidan emanaldia Ymotek bizkaitarrena izan da, bukaera indartsua eman diote gauari. Akaso ez zen abestien letra gehiegi ulertzen, baina ez gara lokartu behintzat!".


3.KONTZERTUA
azaroak
19
EGUBAKOITZA
22:30
ELGETAKO KAFE ANTZOKIA
SARRERAK ETA ABONUAK //
SALGAI DAUDE:
1> GOIENAKO EGOITZETAN
2> 943 25 05 05 ZENBAKIAN
3> ESPALOIA KAFE ANTZOKIAN
SARREREN SALNEURRIA 5 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 3 EURO
ABONUA 22 EURO //
GAZTEKUTXAREKIN 12 EURO
DOCTORS KLUB
ABADIÑO-DURANGO
ROMBOS NEGROS
BERGARA
KARPOVIAN PROJECT
MUTRIKU
EZ!
OÑATI
DANBAKA
IV. MUSIKA LEHIAKETA
DEBABARRENADEBAGOIENADURANGALDEA
www.danbaka.com
BABESLE NAGUSIA
kutxa gazte
LAGUNTZAILEA
PREST
MONDRAGON UNIBERTSITATEA
Elgetako Udala
gaztelupeko HOTSAK
www.hotsak.com
SHOT!
PIL-PILEAN
GAURKO
anboto
drogetenitturri
laino
ANTOLATZAILEAK
Goiena 10 URTE
espaloia

IKERKETA >LIBURU AURKEZPENA

# Seroren figura berezia, antzinako dokumentuetatik mundu digitalera

Egubakoitzean aurkeztu zuten "Serorak Debagoienean (XVI-XVIII)" izeneko liburu digitala Agurne Barruso alkateak eta Mikel Larrañaga ikerlariak



Agurne Barruso eta Mikel Larrañaga egubakoitzeko aurkezpenean. JULIO CALLEJA

TXOMIN MADINA > BERGARA

Funtsean, elizak, ermitak edo santutegiak zaintzen dituen emakumea. Horrelaxe azal daiteke labur esanda zer den serora bat. Testuinguruari erreparatuz gero baina, badago alderik egungo eta XVI eta XVIII. mende arteko seroren artean. Eta horixe da, hain zuzen ere, Mikel Larrañagak Bergarako udalaren ekimenez egindako ikerketaren muina: garai hartan gure ibarrean zeuden seroren errealitatea. Euren betebeharrak, bizimodua, aukeratuak izateko modua, jasan zituzten oztopoak... Horiek guztiak eta gehiago azaltzen dira liburuan.

"XVI. eta XVIII. mendeetan, seroren eskumenak zabalagoak ziren, funtzio laiko eta erlijiosoak zituzten " azaldu digu Larrañagak. Bere esanetan, orduko seroren egoera ez zen beti berdina izaten; maila sozial guztien adierazgarri izan zitezkeen: batzuk ortuak zaintzetik eta limosnetatik bizi baziren, beste batzuk dirutza handiak pilatzen zituzten euren jardunari esker.

## EMAKUME AUTONOMOAK

Ikerketa obejktu moduan serorak zergatik hartu dituen galdetuta, Larrañagak argi du erantzuna: "Aro Berriko emakumeen kasuan, bi ziren aukerak: ezkontza edo komentua. Bada, serorak espazio horretatik kanpo geratzen ziren eta nolabaiteko autonomia ekonomikoa ere eskuratzen zuten. Emakumeen ibilbide historikoan, puntu interesgarria iruditzen zait".

Larrañaga Filosofian lizentziatua da eta egun Historian doktoretza egiten dihardu. Esan digunez, orain arte egin duen ikerketa lana ez da lan erreza izan, baina gustatuko litzaioke gaian sakontzen jarraitzea.

## FORMATU DIGITALEAN

Agurne Barruso alkateak aurkezpenean esan zuenez, ikerketa honekin Udal Artxiboaren erabilera sustatu gura izan dute. Liburua formatu digitalean argitaratu dute bakarrik; Barrusoren ustez, horrela ikerketa edozeinen esku jartzen da zabalkunde handiagoa lortuz. Udalaren webgunean dago dagoeneko liburua.

GOIENA KLUBEKO
BAZKIDE AGURGARRIA:

Atsegin handiz gonbidatzen zaitugu **Goienaren 10. urteurreneko ekitaldira**.
Goiena Telebistak zuzenean eskainiko duenez, puntualtasuna eskertuko da.

Eguna: 2010eko **azaroaren 11**n

Ordua: 18:45ean

Lekua: Arrasateko Amaia antzokian

Konfirmazioa eskertuko da:
idazkaritza@goiena.com • 943 25 05 05

Goiena Komunikazio Zerbitzuak 10 URTE

# iragarkilaburrak.com

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxea saltzen da Muntsaratz auzoan. 2 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea eskegitokiarekin. Dena kanpoalderuntz ematen du. Oso polita. Deitu eta ikusi! 615-007 216

**Arrasate.** Erdialdean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu. 603 79 60 95

**Arrasate.** San Josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

**Beasain.** Erdigunetik gertu dagoen pisua Andra Mari kalean. La salle ikastetxea eta dendak metro gutxira.105 m2, 4 logela, 2 bainugela, balkoia eta terraza. Berri-berria dago, materialak eta eraikuntza kalitate onekoak. Armairu eta altzariak, berogailua, parketa, sukaldeko elektrogailu guztiak, garbigailua. Garaje itxiaaukeran. 656-73 11 43

**Bidegoian.** Etxe bifamiliarra salgai Bidanian. Oso egoera onean, orain dela 5 urtekoa. 3 logela, sala ederra tximiniarekin, sukaldea, 2 bainugela eta garajea ditu. 100 m2ko lorategia du. Sartzeko prest dago.656-74 84 15.

**Durango.** Etxebizitza salgai. Logela bi, egongela, sukaldea eta komuna. Etxe guztiak kanpoaldera ematen du, oso argitsua. Pisu altua, 30 m2-ko terrazarekin. 220.000 euro. Telefonoa: 696-25 50 83. 17:00etatik aurrera deitu.

**Durango.** Alde zaharra. 71 m2. Kanpoaldera begira. Altzariz hornituta. 2 logela. Egongela. Sukaldea. Komun bat. Guztiz berriztuta. Kanpotik (2006): fatxada, atalondoa, eskailera eta teilatua. Barrutik (2007): parketa (elondo), sukaldea (fagor elektrotresnak eta junkers galdara ), gres, berokuntza (gas naturala), kristal bikoitzeko leihoak, ate blindatua. Berehala bizitzera joateko aukera. 223.000 euro. 607-71 53 53

**Durango.** 94m2ko etxea salgai, herriko Gudarien plazan (osasun etxe zaharraren aurrean). 3 logela, 2 komun, sukaldea eskegitokiarekin, egongela ederra, ganbara eta garajea. Kokapen oso ona, etxe eguzkitsua eta bista ederrekin. Prezioa: 343.000 € (57m). 615-76 08 01.

**Etxarri-aranatz.** Etxea errentan edo salgai 654-23 41 02.

**Etxarri-aranatz.** Familia bakarra salgai. Praktikan berria eta jantzitakoa. Hiru logela, bi komun, sukaldea eta egongela. Bajera, lorategia eta bista ederrak. Prezioa adosteko. 637-53 86 15

**Etxarri-aranatz.** Arkuetabide 1 kalean etxebizitza salgai. Jantzita eta prest bizitzera sartzeko. 3 logela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 948-24 41 97 edo 696-19 43 17

**Etxarri-aranatz.** Pisua alokagai edo salgai. 654-23 41 02

**Oñati.** Etxaluzen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela-egongela, lau logela, bi bainugela, bi balkoi, ganbara eta garajea. 647-24 80 02

**Oñati.** Santa Marina plaza inguruan 60 m²ko etxebizitza salgai. Bi logela handi, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. 60 m²ko ganbara, duplexaegiteko aukerarekin. Guztira: 120 metro. Balkoi handia eta oso eguzkitsua. 235.000 €. 610-97 04 32

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan. 639 96 01 21.

**Arrasate** erdigunean etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, gela txiki bat, sukalde-egongela eta komuna. Oso argitsua. Estreinatzeko. 650 euro. 653 95 19 08

**Eskoriatza.** Hiru logela, bi komun. Jantzia. Berokuntza eta igogailuarekin. Prezio interesgarria. 687 78 86 98.

**La Mongie.** Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu. 606 39 70 81.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Bikote batek etxebizitza behar du errentan. 610 62 65 04.

**Debagoiena.** Etxebizitza behar dut errentan. Arrasaten, ahal bada. Hilean asko jota 500 edo 600 euro ordain dezaket. 639 94 48 65.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Lau logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Bertan langileak bizi dira. 653-71 44 57

**Arrasate.** Irakasle ikasketak egiten hasiko garen bi ikasle gara, Enara eta Amaia, eta hiru logelako etxebizitza osatzeko pertsona bat behar dugu. Etxea egoera onean dago, 200 euro izango lirateke pertsonako (gastuak aparte). Etxeak bainugela, sukaldea eta 3 logela ditu, indibidualak eta bakoitza bere idazmahaiarekin. 695-71 92 38

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Pertsona bat behar dut Erguin aldean etxebizitza osatzeko. 670-59 73 62

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Musakolan. Deitu 610-82 02 17 telefonora.

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan erdigunean, ikasleentzat edo beste edozeinentzat. Deitu 648-86 05 49 edo 666-68 00 04 zenbakietara.

**Arrasate.** Erdigunean pisua osatzeko pertsona bat behar dugu. Hilean 200 euro, gastuak barne. Iñaki. 608-49 89 93

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Deitu 18:00etatik aurrera. 943-53 21 62

**Azpeitia.** Alokairuan herritik hurbil, leku paketsu eta lasaian: egongela eta jangela balkoi handiarekin, sukaldea, 2 komun eta 4 logela argitsu ekipaturik. 943-81 34 13 eta 606-07 48 31

**Getaria.** 4 logelako etxebitza haundia, egoera oso onean. Bi pisukideren bila gabiltza. 647-06 30 52

**Oñati.** Pertsona baten bila nabil etxea osatzeko. 606-15 11 47

**Oñati.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu errentan ematekoerrekalden. Deitu 18:00etatik aurrera. 653-74 87 51 edo 699-46 76 11.

**Ziortza-Bolibar.** Gela alokairuan Bolibarren 150 euroren truke. 660-35 80 67

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Aretxabaleta.** Garaje itxia salgai Santa Kurtz kalean. Prezio negoziagarria. 630 46 36 71.

**Arrasate.** 20 metro koadroko garaje itxia salgai Uarkapen. Hirugarren solairuan, sarreratik gertu. 943 24 53 57 edo 615 73 98 30.

### 202. EROSI

**Antzuola.** Alokatzeko garaje bila nabil. Ahal bada, antigua auzo inguruan. 679-31 75 50

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan erdigunean. 24 m2 (8,40x2,85). Roneoko etxeetan. 616-15 63 73

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez. 627 62 12 55.

## 3/ LOKALAK

### 302. EROSI

**Oñati.** Lokala erosiko nuke, 25-120 metro koadro bitartekoa. 943 79 66 75.

### 303. ERRENTAN EMAN

**Durango.** Lonja-trasteroa alokatzen da, Errotaritxuena auzoan. 615-75 00 39

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615 76 94 58

### 402. ESKAERAK

**Bergara.** Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, goizez. 615-76 94 58

**Ordizia.** Arratsaldeetan umea zaintzeko emakume euskaldun baten bila nabil. 677-21 07 40

### 402. ESKAERAK

**Alegia.** Astegunez eta goizez lan egin nahiko nuke alegia, tolosa eta ordizia inguruko herriren batean, zaintzaile moduan, etxeko lanak egiten, zerbitzari... Esperientzia dut. 616-07 70 06.

**Alegia.** Neska euskalduna, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest nago. Tolosaldean edo goierrialdean. Esperientziaduna! 618-17 46 36.

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Feli. 943-53 33 92

**Arrasate.** Gazte bolibiarra lan bila dabil, edozertarako gertu. 689-64 32 15

**Arrasate.** Emakume bolibiarra haurren zein pertsona edadetuen zaintza lanak egiteko gertu dago. Garbiketan ere egingo luke lan, orduka. 686-33 66 66

**Arrasate.** Emakumea gertu orduka zein etxean bertan bizi izanda nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbitasun lanak egiteko ere. 680-30 24 64

**Arrasate.** Emakume bolibiarra lan bila dabil, eta edozein motatako lanak egiteko gertu dago. 695-71 27 81

**Arrasate.** Emakumea gertu ume zein nagusiak zaintzeko, baita etxeko lanak egiteko ere. 663-65 78 43

**Arrasate.** Neska gertu ume zein nagusiak zaintzeko edo elkarteak garbitzeko. Esperientzia daukat. Ordutegi malgua. Dorleta. 618-00 08 28 edo 943-79 82 43

**Arrasate.** Enkofratze lanetan aritutako lehen mailako ofiziala lanerako gertu. Bestelako lanak ere egingo nituzke. 673-03 09 60

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldari lanak egiteko asteburuan edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. 619-78 63 41

**Arrasate.** Sukaldean, jatetxe zein hoteletan lan egingo nuke. Baita nagusiak zaintzen edo eraikuntzan ere. Informatika ezagutzak ditut. 602- 12 03 47

**Arrasate.** Neska gertu zerbitzari edo garbiketa lanetarako. 679-04 42 68

**Arrasate.** Neska gertu garbiketan, sukalde laguntzaile zein nagusi eta umeak zaintzen jarduteko. 630-20 12 03 edo 638-10 28 85

**Arrasate.** Neska gertu edozein lanetarako. Zerbitzari lanetan esperientziaduna naiz. 671-99 92 70

**Arrasate.** Neska boliviarra lanerako gertu. Etxean bizi izaten edo asteburuetan. Legezko dokumentu guztiekin. 618-14 71 34

**Arrasate.** Mutila gertu soldatzaile lanak egin edo eraikuntzan lan egiteko. 677-17 43 75

**Arrasate.** Mutila gertu garbiketa, zerbitzari, sukaldean zein bestelako lanetarako. Autoa daukat. 671-84 71 71

**Arrasate.** Mutila gertu garbiketa edo zerbitzari lanetan jarduteko. Autoa daukat. Deitu 689-88 80 23 zenbakira

**Arrasate.** Emakumea orduka lan egiteko gertu, nagusiak zaintzeko, garbiketa lanetan edota sukaldari laguntzaile moduan. Esperientziaduna eta erreferentzia onekin. Egunez eta gauez lan egiteko prest; 943-79 04 69 *animilena@hotmail.com*

**Arrasate.** Asteburu eta jaiegunetan lan egiteko gertu: garbitasun lanak, nagusiak edo umeak zaintzeko... 682-31 97 37

**Arrasate.** Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko. 635-00 58 17

**Arrasate.** Neska euskalduna, esperientzia handikoa umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. 659-81 59 15.

**Arrasate.** Eta inguruan emakumea gertu sukaldari lanetarako. Udan edo asteburuetan. Bost urteko esperientzia. Agu. 679-73 92 66

**Arrasate.** Umeak zainduko nituzke. Eskolara bila joateko aukera ere bai. Aisialdi titulua. 661-35 49 28

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna goizetan etxeak garbitzeko prest. Esperientziaduna. 618-41 24 79

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu plantxan edo etxeko garbitasuna egiteko, orduka, arratsaldez. 699-54 17 27.

**Aretxabaleta.** Eta inguruko herrietan emakume gaztea etxebizitzak garbitzeko gertu. 607-73 16 78

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Beasain.** Emakume euskalduna prest dago adineko pertsonak zaintzeko. 943-18 02 53

**Bergara.** Umeak zaintzeko, garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko (azken honetan esperientziaduna) gertu nago. Ordutegi malgua. 676-89 50 13

**Bergara.** Emakumea gertu etxeak garbitzeko eta baita sukaldari laguntzaile lanetan aritzeko ere. 665-75 41 32

**Bergara.** Bergara, antzuola edo zumarraga. Neska bat gertu dago etxeak, elkarteak eta abar garbitzeko, nagusiak zaintzeko edota zerbitzari eta plantxa lanetan jarduteko. Ordutegi malgua. Erreferentzia onak eta esperientzia handia. 943-76 66 24 edo 634-91 81 73.

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua.671-44 81 51

**Bergara.** Haur heziketa ikasi duen emakume euskaldun bat umeak zaintzeko gertu. Egun guztian. 943-53 42 54 edo 688-65 30 62

**Bergara.** Emakume bat gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610-34 97 88.

**Bergara.** Emakume arduratsua gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. 671-44 81 51

**Bergara.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. 673-22 38 00

**Bergara.** Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686-11 24 66

**Bergara.** Emakume gaztea haurrak zaintzeko gertu. Ordutegi aldetik arazorik ez. 673-22 38 00

**Bergara.** Emakumea gertu goiz eta arratsaldez umeak edo nagusiak zaintzeko. 610-34 97 88

**Bergara.** Haurrak zaintzeko gertu nago, orduka zein egun osorako. Esperientzia handia daukat. 686-11 24 66

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo zerbitzari zein sukalde laguntzaile jardungo nuke. Deitu 646-07 79 60 edo 943-77 01 31 zenbakietara

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea gertu asteburuetan sukaldari jarduteko. Zerbitzari ere arituko nintzateke. 619-78 63 41

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

sailkatuak@goiena.com

http://www.goiena.net/sailkatuak

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 m². 237.399 €.
- Masterreka. 88 m². Igogailuarekin.
- Artekale 40 m². Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m². Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m². Oso ondo
- Mekolalde 110 m². 90.000 €.
- Osintxu. 70 m². Igogailuarekin. 153.258 €.
- Ibargarai 54 m². Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m². Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m². Prezio ona.
- Matxiategi 65 m². Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m². 146.888 €.
- Bolu 96 m². Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m². Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m². 154.761 €.
- Aranerreka 80 m². 189.319 €.
- San Lorentzo 68 m². Berritua.
- Herri Lagunak 52 m². Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m². Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA.** Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK: 249.210 €tik hasita.**
- San Roke eta Salbador. Etxe onak.

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Aranerreka, 80 m², oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m², eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m², eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m², oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m², berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m², oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m².
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Zabalotegi 80 m², eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m², terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m².
- San Antonio, 65 m², eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m², eraikuntza berria.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.**
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m². Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m². Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m². Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m², berria.
- Sagarerreka, 58 m², aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ZER DIOTE ATZEGIKOEK?

**Debagoiena.** Neska esperientziaduna gertu zerbitzari edo garbiketa lanetan jarduteko. 679-04 42 68

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu goizez etxeko lanak egiteko. 616-68 02 18

**Debagoiena.** Neska euskaldun bat gertu nagusiak zaintzeko gauez zein egunez, edo etxean bertan lo eginda ere bai. Klinika laguntzailearen titulua. 646-38 46 81

**Debagoiena.** Psikologiako laugarren mailako ikaslea prest dago arratsaldez eskola partikularrak eman eta haurrak zaintzeko. Esperientziaduna. Zorione. 669-97 46 65.

**Debagoiena.** Bertako neska esperientziaduna gertu asteburuetan nagusiak zaintzeko. 637-18 07 23

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Fany. 630-94 65 76

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko edo sukalde laguntzaile jarduteko. Luisa. 638-89 98 60

**Debagoiena.** Mutila gertu edozein lan egiteko. 606-78 35 94

**Debagoiena.** Neska bat etxeko lanak egiteko prest, orduka, interna edo ez; edozein modutan. Tabernetan ere lan egingo nuke. Esperientzia daukat sukaldean. Eta garbiketa lanak ere egiteko prest nago. Erreferentziak dauzkat, baita paper guztiak behar bezala ere. 943-53 36 72 edo 677-73 79 59

**Debagoiena.** Neska gertu etxean zein egoitzatan nagusiak zaindu edota garbiketak egiteko. 629-80 77 73

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanetan jarduteko. Etxean bizi izaten edo bestela. Erreferentzia onak ditut. 638-93 11 48

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko, orduka garbiketak egiteko edo tabernetan lan egiteko. 648-46 90 51

**Debagoiena.** Sukalde eta komunak berrizten ditut, prezio onean. 663-72 37 44

**Debagoiena.** Emakumea gertu goizetan nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. 626-78 22 95

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume gazte batek hainbat lan egingo lituzke: etxeko lanak, etxeak garbitu, sukaldari laguntzaile, zerbitzari... 663-46 93 60 edo 943-08 11 07

**Debagoiena.** Mutil gaztea askotariko lanak egiteko gertu. 654-98 69 14

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin edo etxean bizi izaten zein bestela nagusiak zaintzeko. 610-60 62 29

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi edo umeak zaintzeko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. 671-15 96 97

**Debagoiena.** Edozein lanetarako gertu nengoke. Ordutegi malgua. Beatriz. 610-99 70 46

**Debagoiena.** Neska gertu etxeko lanak egiteko, garbiketa lanetarako, laguntzaile jarduteko eta nagusi edo umeak zaintzeko. Legezko paperak dauzkat. 648-01 40 94 edo 943-08 20 79

**Debagoiena.** Ile-apaintzaile edo makillatzaile lanetan jardungo nuke. Baita nagusiak zaintzen ere. 666-21 88 95

**Debagoiena.** Askotariko obrak egiteko gertu gaude; besteak beste, denetariko margotzeak, parket flotatzaileak, harrizko harresiak eta pladurrezko sabaiak. Prezio merkea. 675-70 00 02 edo 665-70 10 57

**Debagoiena.** Lokal, baserri eta denetariko egoitzak garbitzeko prest gaude. 675-70 00 02 edo 665-70 10 57

**Debagoiena.** Emakumea eskaintzen da asteburutan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. 699-09 46 26

**Debagoiena.** Erizain laguntzailea gertu nagusiak zaintzeko. Ordutegi malgua. Gauez ere bai. Autoa daukat. 622-05 21 74

**Debagoiena .** Neska arduratsua, esperientziaduna, gertu umeak zaintzen, nagusiei laguntzen edo orduka garbiketa lanetan jarduteko. Deitu eguerdietan, 16:00ak arte, telefono finkora, edo gauetan. 943-71 53 74 edo 695-73 87 95

**Debagoiena.** Mutila gertu asteburuetan edozelako lanak egiteko. 654-98 69 14

**Debagoiena.** Mutila gertu garbiketa edo bestelako laneran jarduteko. 689-88 80 23

**Debagoiena.** Paperak dituen emakumea gertu etxeak garbitzeko, sukaldari laguntzaile edo garbitzaile gisa lan egiteko. 645-69 36 51

**Durango.** Durangon edo ñinguruetan, umeak eta ñpertsona nagusiak zaintzeko prest. Paperekin. Telefonoa: 628-00 22 17

**Gipuzkoa.** Emakumea gertu orduka lan egiteko garbiketan, nagusiak zaintzen edota etxeko lanak egiten. 606-74 16 15

**Olaberria.** Neska euskalduna eskeintzen da goizetan haurrekin laguntzeko eta eskolara eramateko. Umeekin esperientzia, batez ere 0-6 urte bitartekoekin. Kotxea daukat eta prest nago goierrialdean mugitzeko. 628-45 37 34

**Oñati.** Neska euskalduna irailetik aurrera arratsaldeetan haurrak zaintzeko prest. 606-15 11 47

**Zarautz.** Gizon euskalduna naiz,lan egiteko prest nago, edozein lanetarako. Deitu 658-73 08 08 telefonora.

**Zarautz.** Txakur hezitzaile ikasketak burutzen ari den mutila txakurrak hezi eta paseatzeko prest. Zumaia, zarautz eta eibar inguruetan. Urrunago mugitzeko aukerarekin. 645-72 43 97. josu. ae@hotmail.com

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Arrasate.** Bigarren batxiler artistikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 628 77 58 28.

**Bergara.** Filosofiako irakasle baten bila nabil. 618 79 47 48.

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Bigarren batxilergora arteko eskola partikularrak ematen ditut. 653-01 76 67

**Arrasate.** Bigarren batxiler artistikoko eskola partikularrak emango dizkidan norbait behar dut. 628-77 58 28

**Arrasate edo Bergara.** Arkitekturan lizentziaduna eskola partikularrak emateko prest, DBH eta batxilergo mailetan. Esperientziaduna. 639 46 07 26

**Arrasate.** Neska euskalduna LHko eskola partikularrak emateko gertu. 615-76 19 82

**Azpeitia.** EGA-ko azterketarako zein beste hizkuntza eskakizunetako azterketetarako jendea prestatzen dut. Euskararen irakaskuntzan esperientzia dut. Euskaltegiko irakaslea naiz. Gipuzkoan barrena mugitzeko prest nago. 645-71 85 78

**Bergara.** Dbhko eskola partikularrak ematen ditut. 20:00etatik aurrera deitu. 943-76 03 75 edo 605-26 24 62

**Bergara.** Bergaran ingeleseko elkarrizketa lantzeko eskola partikularrak ematen ditut. 654-94 87 26

**Bergara.** Irakasle esperientziadun batek Lh eta dbhko lehen zikloko eskola partikularrak ematen ditu. Ingeleseko first ziurtagiria du. Deitu 636-16 30 10 zenbakira.

**Bergara.** Irakasle esperientziadunak eskola partikularrak ematen ditu. Deitu 636-16 30 10 edo 943-76 49 41 zenbakira

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza dut ingelesa. 696-63 97 48

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut eta euskaraz ere badakit. 682-64 57 37

**Debagoiena.** Gaztea gertu ingeleseko eskola partikularrak emateko. Ama-hizkuntza ingelesa dut. 682-64 60 99

**Donostia.** Ingeles eta euskarako klase partikularrak. Ingeleseko magisteritzan diplomatua naiz. 696-97 94 49

**Debagoiena.** Neska euskalduna, irakaskuntzan diplomaduna, lehen hezkuntzan eskola partikularrak emateko prest. Esperientziaduna. 652-73 14 44

**Debagoiena.** Neska gaztea euskera, ingles edo gaztelaniako klaseak emateko prest. 628-87 02 43/628-87 02 43 edo 943-79 85 01

**Donostia.** Klase partikularrak Lehen hezkuntza eta dbhko ikasleentzat. Esperientzia handiko irakaslea, heziketa berezian diplomaduna eta gizarte eta kultur antropologian lizentziaduna. 628-04 15 26.

**Donostia.** Sendatze, soinu eta meditazio tailerra. Azaroak 12,13 eta14. (Carmelitas descalzas) monastegia, Hondarribia. Informazioa eta erretserbak 636-73 76 62. Itziar.

**Donostia.** Unibertsitateko ikasle bat haurrei eskolako lanetan laguntzeko prest. 687-67 49 10.

**Durango.** 4. mailako Telekomunikazio Ingenieritzako ikasle euskalduna Batxilergoko eta DBHko klaseak Durangon emateko prest. Espezialitatea matematika klaseetan.635-74 61 76

**Gasteiz.** Ingeles filologiako 2. Mailan nagoen neska euskalduna naiz. Haurrak zainzeko edota klase partikularrak emateko prest nago lehen hezkuntzan zein dbhn. Ega titulua dut eta haurrekin esperientzia. Deitu 696-21 59 39 zenbakira. *etxebe_2@hotmail.com* Ane

**Oñati.** Irailetik aurrera klase partikularrak ematen dira. Esperientziadun irakaslea naiz eta banaka edo talde txikiak hartzen ditut, l. H., D. B. H. Eta batxilergoko mailetan. Ikaslearen edo irakaslearen etxean. 649-27 63 50 edo 943-53 28 15

**Oñati.** Irakaskuntza munduan esperientzidun ingenieri mekanikoa, klase partikularrak emateko prest. Dbh nahiz lanbide heziketako ikasleei. Deitu 646-42 13 63 telefonora.

**Tolosa.** Lehen hezkuntzako irakasle ikasketak amaitzear dagoen esperientziadun neska arduratsu bat haurrak zaindu edota eskola partikularrak emateko prest. 620-00 89 25

**Villabona.** Ingeleseko klaseak ematen dira Gipuzkoa mailan.Taldeka edo bakarka. Maila ezberdinak. Irakasle tituluduna.664-16 02 68 *continental56@hotmail.com*

